

**EUSKARA**

**Maidier ZABALETA ARANGOA**

**NARRAZIOZKO, AZALPENEZKO ETA  
INFORMAZIOZKO TESTUEN  
ULERMENA ETA EKOIZPENA 6.  
MAILAN**

**TFG/*GBL* 2013**

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Primaria /  
LehenHezkuntzako Irakasleen Gradua**



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**NARRAZIOZKO, AZALPENEZKO ETA**  
**INFORMAZIOZKO TESTUEN ULERMENA ETA**  
**EKOIZPENA 6.MAILAN**

Maider ZABALETA ARANGOIA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea/ Estudiante**

Maidier ZABALETA ARANGOIA

**Izenburua / Título**

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6. mailan.

**Gradu/ Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua/ Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia/ Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea/ Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa/ Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria/ Director**

Juan Jose ZUBIRI LUJANBIO

**Saila/ Departamento**

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika/ Filología y Didáctica de la Lengua.

**Ikasturte akademikoa/ Curso académico**

2012/2013

**Seihilekoa/ Semestre**

Udaberria/ Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

---

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluakhizkuntza arloan irakaslearen papera nolakoa izan behar duen hausnartzeko. Irakaskuntza-ikaskuntza eraginkorra izan dadin, ikasleen motibazioa sustatzeko estrategiak ezagutzeko bidea eman digu (gelako giroa, teknologia berrien erabilera, ikasleen parte hartzea, etab.). Oinarrizko prestakuntzako modulua, 3. puntuan, hots, material eta metodoak puntuan nabarmentzen da lanean.

Didaktika eta diziplinako moduluakbidea eman digu hizkuntzaren didaktika nolakoa izan behar duen hausnartzeko. Irakasleak euskara irakasteko erabiltzen dituen metodologia eta baliabide ezberdinak ezagutzeko aukera ematen digu lan osoan zehar, baina batez ere, 3. puntuan.

Halaber, Practicum moduluak aukera ematen digu Elorri ikastetxean praktikan aritu bitartean, egindako behaketetatik euskararen didaktika nola bideratzen duten ezagutzeko. Praktikan burututako behaketa oinarritzen da lan hau eta ondorioz, lan osoan zehar nabarmentzen da practicum modulua, baina bereziki 3. eta 4. puntuetan, hau da, material eta metodoak eta emaitzak puntuetan. Ondorioetan ataletan ere ikus dezakegu.

Azkenik, aukerako moduluak bidea eman digu euskararen didaktikan ikasleen aniztasunari nola erantzuten zaion eta zein estrategia erabiltzen dituzten ezagutzeko. Aukerako modulua batez ere 3. puntuan nabarmentzen da.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES” eta “CONCLUSIONES” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Gratu Amaierako Lan honetan, Lehen Hezkuntzako 6. mailan testu idatzien eta ahozko testuen lanketa nola garatzen den behatzea izan da helburu nagusia. Bereziki azalpenezko, narraziozko eta informaziozko testuetan oinarritzen da lana. Alde batetik, idatzizko eta ahozko testuen *ulermena* nola bermatzen duten aztertzea izan da helburua, hau da, ikasleen irakurritakoaren eta entzundakoaren ulermenerako irakasleek zein estrategia erabiltzen dituzten ikustea. Beste aldetik berriz, idatzizko eta ahozko testuen *ekoizpena* nola lantzen duten ikertu nahi izan da, hots, testu mota ezberdinak idazteko zer-nolako teknikak erabiltzen dituzten behatzea eta ahozkotasuna garatzeko bideak aztertzea. Azken finean, euskararen ikaskuntza eraginkor baterako, funtzionaltasunean oinarritutako irakaskuntza zertan datzan behatu nahi izan da. Lanak, hasierako helburuak eta galderak, behaketaren ondorengo azalpenak eta dokumentazio ezberdinak, emaitzak eta ondorioak barne hartzen ditu.

*Hitz gakoak:* gaitasun linguistikoa; ahozkotasuna; testu ulermena; testu ekoizpena; komunikazioa.

## Resumen

El objetivo principal de este Trabajo Fin de Grado ha sido la observación sobre cómo se trabajan los textos escritos y orales en 6º curso de Educación Primaria. Se centra especialmente en los textos expositivos, narrativos e informativos. Por un lado, se ha querido estudiar la forma en que los maestros/as garantizan la *comprensión* de los textos escritos y orales de los alumnos/as, es decir, observar las estrategias que utilizan para la comprensión lectora y auditiva. Por otro lado, se ha querido investigar la manera de trabajar la *producción* de los textos escritos y orales, esto es, analizar las estrategias empleadas para escribir diferentes textos e indagar sobre los métodos que desarrollan la oralidad. En definitiva, se ha observado en qué consiste la enseñanza basada en la funcionalidad, para un aprendizaje efectivo. Este trabajo aborda los objetivos y preguntas iniciales, las explicaciones, diferentes documentos, los resultados y las conclusiones.

*Palabras clave:* capacidad lingüística; oralidad; comprensión textual; producción textual; comunicación.

## **Abstract**

This Work of End of Degree deals with the subject of ways of working on oral and written texts in the 6th course of Primary Education. It is based, mainly, on explanatory, narrative and informative texts. On one hand, I focused on how teachers ensure pupils' *comprehension* of oral and written texts. Correspondingly, I studied the strategies that educators use to make children easier understand what they read or hear. On the other hand, how teachers run the process of *producing* oral and written texts has also been examined. Therefore, diverse techniques that teachers use for helping children creating texts were explored and also the means to encourage children to develop their oral skills. Ultimately, the review seeks to an effective methodology to teach Basque based on a functional approach. This paper presents the first questions and the aims of the work, the explanations and the documentation, the results and the conclusions.

*Keywords:* linguistic competence; speaking skills; text comprehension; text production; communication.



## Aurkibidea

<b>Sarrera</b>	1
<b>1. Antecedentes, objetivos y cuestiones</b>	1
1.1. Antecedentes	1
1.2. Objetivos	3
1.2.1. Objetivos generales del currículo	3
1.2.2. Objetivos específicos	4
1.3. Cuestiones	5
<b>2. Oinarri teorikoa</b>	6
2.1. Hizkuntzaren didaktika birplanteatzeko beharra	6
2.2. Hizkuntza eta komunikazioaren garrantzia sozializazioan eta ingurunearekiko egokitzapenean	9
2.3. Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren arteko distantzia	11
2.4. Adimen linguistikoa eta hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna	12
2.5. Testu tipologia eta didaktikaren funtzionaltasuna	15
2.6. Irakurriaren ulermenerako estrategiak	17
2.7. Curriculumak hizkuntzen tratamendu integratuari buruz dioena	19
<b>3. Material eta metodoak</b>	20
3.1. Hizkuntzaren didaktika eraginkor baten bila: sistematizazioa	21
3.2. Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena	23
3.2.1. Idatzizko testuen ulermena (irakurketa)	23
3.2.2. Idatzizko testuen ekoizpena (idazketa)	37
3.2.3. Ahozko testuen ulermena (entzumena)	42
3.2.4. Ahozko testuen ekoizpena (mintzamena)	44
3.3. Oinarrizko gaitasunen garapena	47
3.4. Irakur zaletasunaren sustapena	49
<b>4. Emaitzak</b>	53
<b>Conclusiones</b>	
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Eranskinak</b>	
<b>A. 1. eranskina</b>	
<b>A. 2. eranskina</b>	
<b>A. 3. eranskina</b>	
<b>A. 4. eranskina</b>	
<b>A. 5. eranskina</b>	
<b>A. 6. eranskina</b>	
<b>A. 7. eranskina</b>	
<b>A. 8. eranskina</b>	
<b>A. 9. eranskina</b>	
<b>A. 10. eranskina</b>	
<b>A. 11. eranskina</b>	
<b>A. 12. eranskina</b>	
<b>A. 13. eranskina</b>	
<b>A. 14. eranskina</b>	
<b>A. 15. eranskina</b>	
<b>A. 16. eranskina</b>	



## **SARRERA**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Graduoko lehen ikasturtean Gradu Amaierako Lana burutzeko ezinbestekoa da arautegiak zehazten duen bezala. Lan honetan, gradua ikastean lortu ditugun prestakuntzaren edukiak, gaitasunak eta trebetasunak aplikatu eta garatu behar ditugu.

Nire Gradu Amaierako Lana, Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika sailaren barruan kokatzen da, Euskara arloan hain zuzen. Lanaren izena Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6. mailan da eta proiektua burutu ahal izateko, praktikak egin nituen Mendillorriko Elorri ikastetxeko metodologian oinarrituko naiz.

### **1. ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES**

Hoy en día, existe un elevado porcentaje de los alumnos/as con dificultades en la comprensión y producción de los textos escritos y orales, con escaso desarrollo de estrategias de producción de textos. Es por esto que he decidido enfocar este proyecto a la observación de una metodología más efectiva.

#### **1.1. Antecedentes**

Se entiende por competencia en comunicación lingüística la habilidad para utilizar la lengua, y teniendo en cuenta que es un factor clave para el desarrollo humano, es importante que analicemos y reflexionemos sobre cómo se fomenta y se desarrolla la competencia en comunicación en las escuelas.

Tiene una doble función en el desarrollo humano: individual y social. Individual, en tanto instrumento que permite a cada individuo pensar, transformar su conocimiento, regular su propia actividad y expresarse. Social, porque además de ser socialmente transmitido y mantenido, los grupos humanos se construyen y desarrollan en una actividad que tiene en el lenguaje su eje y soporte. Es el instrumento con el que la cultura se crea, se cimienta y se transmite.

La lengua, en fin, contribuye a la creación de la propia imagen y fomenta las relaciones constructivas con los demás y con el entorno. Aprender a comunicarse es establecer lazos con otras personas, es acercarse a nuevas culturas, realidades y mundos que adquieren consideración en la medida que se conocen. El concepto de competencia en comunicación es expresar e interpretar conceptos, pensamientos, sentimientos, hechos y opiniones a través de discursos orales y escritos y para interactuar lingüísticamente en todos los posibles contextos sociales y culturales.

En la escuela Elorri le dan importancia a las tareas de escuchar, hablar y conversar, cuales exigen habilidades lingüísticas. Para ello, por un lado, trabajan la identificación de las características propias de la lengua hablada para interpretar y producir discursos orales adecuados a cada situación de comunicación. Por otro lado, también le dan importancia a la lectura y a la escritura. Leer y escribir son acciones que exigen desarrollar las habilidades para buscar, recopilar, seleccionar y procesar la información y que permiten al individuo ser competente a la hora de comprender y producir distintos tipos de textos con intenciones comunicativas diversas.

En el C. P. Elorri tienen claro que se debe enseñar la lengua vasca como una lengua viva, tal y como es en la realidad. Por esto, aparte de trabajar los textos escritos en formato papel, se les debe exponer distintos textos escritos y orales en diferentes formatos y soportes que nos podemos encontrar en la vida cotidiana (programas de radio, chistes, vídeos, poemas, propagandas informativas de los supermercados, cuentos, etc.). Saben que una lengua se aprende mediante la utilización de la misma y es por ello que en la escuela Elorri la oralidad es muy importante y lo trabajan realizando diversas actividades.

Las destrezas o procedimientos son las habilidades necesarias tanto para escuchar y comprender discursos diversos, como para formular las ideas propias a través de la lengua oral. Para desarrollar dichas destrezas o procedimientos, los profesores diseñan diferentes actividades.

## **1.2. Objetivos**

A la hora de realizar este estudio, decidí centrar mi Trabajo Fin de Grado en la escuela Elorri por su adecuada labor en la comprensión y producción de diferentes textos orales y escritos.

Antes de empezar con la observación, me planteé las siguientes preguntas o cuestiones como punto de partida:

- Si se trabajan de igual manera o no todos los tipos de textos, ya que es distinto trabajar un texto narrativo o un texto informativo.
- Teniendo en cuenta los distintos medios y recursos existentes, averiguar si los textos escritos y los textos orales se trabajan de manera distinta; o si no se aprovechan dichos medios o recursos.
- Ver si en Elorri la enseñanza de la lengua vasca depende de la metodología que utiliza cada profesor y su apego e implicación por la lengua; o si en la escuela existe un plan que concrete la enseñanza de la lengua vasca de una forma sistematizada.
- Saber cómo se impulsa el fomento por la lectura.

### **1.2.1. Objetivos generales del currículo.**

Según el currículo de Educación Primaria, la enseñanza de la Lengua Vasca y la Literatura en el modelo D en esta etapa tendrá como objetivo el desarrollo de las siguientes capacidades:

1. Comprender discursos orales y escritos relacionados con asuntos cotidianos en los diversos contextos de la actividad social y cultural.
2. Expresarse oralmente, hablar y conversar, y por escrito formando discursos y textos con frases sencillas y adecuadas en los diversos contextos de la vida diaria.
3. Valorar la realidad plurilingüe europea, de España y las variedades lingüísticas del vascuence como una riqueza cultural.
4. Utilizar la lengua oral de manera espontánea y adecuada en temas cotidianos de interés personal o pertenecientes a la vida diaria (familia, aficiones,

- acontecimientos actuales...) adoptando una actitud respetuosa y de cooperación.
5. Utilizar las diversas clases de escritos, en formato convencional, mediante los que se produce la comunicación con las instituciones públicas o privadas, en situaciones relacionadas con la escuela y su actividad.
  6. Usar los medios de comunicación social y las tecnologías de la información para obtener, interpretar y valorar informaciones generales sobre temas cotidianos y expresar opiniones acerca de ellos.
  7. Utilizar la lengua eficazmente y con sentido crítico en la actividad escolar tanto para buscar, recoger y procesar información, como para escribir textos propios del ámbito académico.
  8. Utilizar la lectura como fuente de placer, conocimiento y enriquecimiento personal en diversos ámbitos (literario, científico, social...) y acercarse al conocimiento de la tradición literaria, a través de los textos literarios.
  9. Comprender y producir textos de géneros diversos adecuados en cuanto a temática y complejidad e iniciarse en los conocimientos de las convenciones específicas del lenguaje literario.
  10. Usar los conocimientos sobre la lengua y las normas del uso lingüístico para escribir y hablar de forma adecuada, coherente y correcta, y para comprender textos orales y escritos.
  11. Reflexionar sobre los diferentes usos sociales de las lenguas para evitar los estereotipos lingüísticos que suponen juicios de valor y prejuicios clasistas, racistas o sexistas.
  12. Adquirir destrezas y habilidades prácticas para el aprendizaje y transferir conocimientos y estrategias de comunicación a otras lenguas.

### **1.2.2. Objetivos específicos**

Estos son los objetivos específicos de mi trabajo:

- Conocer de qué forma se trabajan los textos narrativos, expositivos e informativos.

- Analizar las estrategias que se utilizan para la comprensión y producción de los textos orales.
- Investigar los recursos y materiales que se utilizan para trabajar la comprensión oral.
- Investigar las estrategias que se utilizan para la comprensión lectora y producción de textos.
- Estudiar los recursos y materiales que se utilizan en la comprensión lectora.
- Conocer las estrategias y recursos que utilizan para trabajar el discurso escrito.
- Averiguar cómo se desarrollan y se fomentan las cuatro destrezas o habilidades de la didáctica de la lengua (escuchar, hablar, leer y escribir) mediante actividades sistematizadas.
- Ver cómo se fomenta la afición por la lectura.

### **1.3. Cuestiones**

En este proyecto me he limitado a observar cómo trabajan tres tipos de texto en sexto curso del C. P.Elorri: los textos narrativos, expositivos e informativos. Por una parte, he analizado en profundidad la metodología y estrategias que emplean para la comprensión de estos tres tipos de texto. Aparte de esto, he estudiado la manera en que realizan las producciones. En definitiva, he abarcado dos aspectos: la comprensión textual por un lado y la producción o expresión textual, por el otro. Al mismo tiempo, he querido analizar cómo trabajan los textos orales y escritos. Por lo tanto, mis cuestiones se podrían resumir de la siguiente manera:

- La comprensión oral y escrita de los textos narrativos, expositivos e informativos (comprensión oral y lectora).
- La producción oral y escrita de los textos narrativos, expositivos e informativos (expresión oral y producción escrita).

Al final, se podría decir que mi propósito ha sido ver cómo se desarrollan las cuatro destrezas de la lengua: las referidas a la comprensión (escuchar y leer) y las referidas a la producción o expresión (hablar y escribir). En relación a esto, decir que las destrezas “escuchar” y “hablar” forman parte de la oralidad, mientras que “escribir” y “leer” de la escritura.

Me he dedicado a investigar las acciones que llevan a cabo en el C. P.Elorri para desarrollar y fomentar dichas capacidades. Por ejemplo, actividades para fomentar la lectura, el uso de la biblioteca escolar, las estrategias para garantizar la comprensión, etc.

## **2. OINARRI TEORIKOA**

*Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6. mailan* proiektua egiterakoan ezagutza alor honetako teoria ezberdinetan oinarritu naiz.

Euskara hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko azterketa eta hausnarketa egiteko parada izan dut Mendillorriko Elorri Ikastetxeko 6. mailan. Aipatu bezala, alde batetik, narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena ziurtatzeko Elorri ikastetxean zein estrategia erabiltzen dituzten aztertu nahi izan dut eta testu mota hauen ekoizpena nola lantzen den hausnartu, bestetik. Gainera, ahozko eta idatzizko testuen ulermen eta ekoizpenean oinarritzen da proiektua.

Azterketa hau bideratu ahal izateko, ezinbestekotzat jotzen dut teoria ezberdinen inguruan ezagutza eskuratzea. Teoria ezberdinak ezagutuz abiapuntu teoriko bat edukiko dugu egoera edo ikergaia ulertzeko eta aztertzeko. Teoriak aurkitutako errealitatearekin konparaketak egiteko balioko digu eta baita ondorioak ateratzeko ere.

### **2.1. Hizkuntzaren didaktika birplanteatzeko beharra**

Hizkuntzaren didaktikan zentratuz, ia beti hitz egiten da eskola emaitzei edota ikasleen ikaskuntza mailari buruz eta iruzkin berdina sortu ohi da: ikasleek ez dakite behar bezala adierazten, irakurtzen dutena ulertzeko zailtasunak dituzte, gero eta okerrago hitz egiten dute, soilik euren artean elkar ulertzen dute... eta egia da. Funtzionaltasun falta honek eskolan hizkuntzaren didaktika birplanteatzera behartzen gaitu.

Cassany, Luna eta Sanz-en (1994) arabera, hizkuntza irakasten hasteko, irakasleen prestakuntza linguistikoa kontuan hartzeko faktoreetako bat dela azpimarratzen dute. Irakasle asko daude ama hizkuntza gaztelania dutenak eta gaztelaniaz hitz egiten dutenak. Hauek E.G.A. titulua atereaz klaseak euskaraz emateko gaitzen dira baina Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan



askotan egiaztagiri hau ez da benetako posibilitateekin bat etortzen, hizkuntza baten ezaguerak ez baitu hizkuntza hori erabiltzeko gaitasuna inplikatzeko. Irakasle asko daude irakasten duten hizkuntzaren sistema behar bezala maneiatzen ez dutenak eta hauek gutxi dute behar adinako adierazpen gaitasuna ikasleentzako adierazpena estimatu eta gidatu ahal izateko. Beraz, irakasle gutxi daude ikasleentzako eredu linguistiko bilakatuko direnak.

Irakasleak kontziente dira ezgaitasun honetaz eta horrek segurtasun-eza sortzen die. Segurtasun-eza horri arau ortografikoak, etab. irakatsiz aurre egiten die, gutxienez esplizitua delako, mugak dituelako eta beraz, kontrolagarria delako.

Irakasleentzako prestakuntza metodologikoak ere hutsuneak aurkezten ditu. Urte askotako esperientzia duten irakasleek oraindik irakasle eskolan ikasitakoarekin jarraitzen dute edota beti erabili izan dituzten testu liburuekin jarraitzen dute berrikuntza metodologikoei kasu gehiegirik egin gabe.

Cassany et al. (1994) irakaskuntzan zentratzen dira ere, eta bereziki hizkuntzaren alorrean. Beraien ustez azken urteetan asko aurreratu da metodo berriak hedatu direlako, material berritzaileak, ikerkuntzak, etab. Honek guztiak hizkuntzaren didaktika planteamendu berrietara bideratu du, irakasleek baztertu ezin ditzakeen bide berrietara.

Azaldutako faktore hauek hizkuntzaren ikaskuntza egokiaren kontra eragiten dute baina ezinbestekoa da hizkuntza bat nola irakasten den eta nola ikasten den aztertzea. Cassany, Luna eta Sanzek (1994) liburuan azaltzen duten moduan, eskoletan hizkuntza irakaskuntzaren klaseetan denbora gehiena arauen lanketan ematen da, hau da, gramatika ikasten igarotzen dira ordu gehien. Ondoren, sintaxiak, morfologiak eta ahots altuan irakurtzeak jarraitzen diote. Erredakzio lan batzuk ere egiten dira eta oso ordu gutxi dedikatzen zaizkio ahozko adierazpenari. Modu honetan, oso gutxitan lantzen da hizkuntza komunikaziorako elementu bizi eta erabilgarri bat bezala. Ondorioz, ikasleek hizkuntza, testu liburu edo gramatika bezala identifikatzen dute, irakasgai bat gehiago bezala. Ikasleak oso urrun daude hizkuntza egunero komunikatzeko, jolasteko, hitz egiteko, ikasteko... erabiltzen dela ulertzetik.

Hizkuntzaren ikuspegi honek ikasleen gaitasun linguistikoari buruzko diagnosi okerrak egitera garamatza. Adibidez, badaude ikasle batzuk gauzak dakizkitenak, asko irakurtzen dutenak baina eskolarako interesik agertzen ez dutenak, desordenatuak direnak, hizki txarra dutenak eta beraien testu ekoizpenetan akats ortografikoak ageri direnak. Askotan, irakasleek euren erredakzio bat zuzentzean ondokoa pentsa dezakete: “Lastima, zeren gauzak esaten dituzu eta erakargarria da.”

Beste ikasle batzuk berriz, ikasle onak dira, diziplinatuak, memoria ona dutenak, arreta mantentzeko gaitasun ona dutenak, euren erredakzioak aurkezpen ezin hobea dutenak, akats ortografiko gutxirekin baina ideia bakarra garatzen dutenak testu osoan. Kasu hauetan irakasleak ondokoa pentsa dezake: “Oso ongi, oso akats gutxi”. Beraz, nork dauzka hizkuntza arazo gehiago?.

Cassany et al.-en (1994) arabera, gakoa, hizkuntzaren ikaskuntza kode eta arauen eskuratzea bezala ulertzean edo komunikatzeko beharrezkoak diren estrategien jabeak eta garapena bezala pentsatzean datza. Beste aldagai bat gelen egungo antolaketa da zeinak banakako lana bultzatzen duen eta ikasleen ikaskuntzaren protagonista bakarra irakaslea bera bilakatzen duen. Mahai indibidualak topa ditzakegu egun oraindik geletan, edota gehienez binaka ezarrita daudenak, denak arbela aldera eta irakaslea esertzen den aldera begira, testu liburuaren erabilera, irakaslearen klase magistralak, eta abarrek irakaslearengan eta liburuan zentratutako dinamikaz hitz egiten digute. Ikaskuntza mota honek ikasleen jokabide pasiboa, obediente eta isila du oinarri. Ikasleek denbora osoa isilean eta irakasleak Hizkuntzaz hitz egiten ematen duen denbora guztia, ikasleek hitz egiten ez duten denbora da, eta hitz egin gabe ezinezkoa da ahozko hizkuntza behar bezala maneiatzea. Batez ere bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan oso garrantzitsua da ikasleei protagonismoa ematea, hitz egin dezaten bultzatzea.

Irakasleak ikasleen ikaskuntza gidatu behar du, zuzendu, aholkatu, etab. Ikasleak dira aktibo izan behar dutenak, hots, hitz egin, irakurri, eztabaidatu, etab. egin behar dutenak. Irakasleek maiz sentitzen dute klasea hobeki doala isiltasuna dagoenean eta ikasleak geldirik daudenean. Hau horrela, ondoren, matematikako irakasleak problema baten enuntziatua irakurrita problema ebatzea eskatuko die, gorputz hezkuntzakoak

ahoz emandako instrukzioak jarraitzea eskatuko die, inguruneakoak testu baten eskema egitea nahiko du, etab. Beraz, noiz bukatzen da benetan hizkuntzako klasea? Ikaskuntza prozesuak ulertzeko eta forma guztietan adierazteko estrategiak barnehartzen ditu baina, noiz ikasten dira estrategia hauek? Hizkuntza ikaskuntza guztien bitarteko tresna da eta ondorioz, den bezala irakatsi behar da eta ikuskera hau eskolak ezin du alde batera utzi. Beraz, hizkuntza ikaskuntzaren arazoez hitz egin beharrean, hizkuntza irakaskuntzaren arazoez hitz egin beharko genuke.

Cassany et al.-ek (1994) planteatzen duten galdera ondokoa da: Egokia al da inguruneako irakasleak nota txarra jartzea ikaslearen lanen aurkezpena ez bada egokia? Edota akats ortografiko asko baditu? Edota inongo egiturarik ez badute edo ideiak gaizki garatuta badaude? Galdera hauei erantzun ahal izateko, hizkuntzaren ikaskuntza irakasle guztiei dagokien zerbait ote den galdetu beharko litzateke. Beraien ustez irakasle guztiei inplikatzeko dien arazoa da hau, irakasle guztiak hizkuntzaren irakasle baitira. Beraz, irakasle guztiek eduki behar dute gaitasun linguistikoa eta gaitasun komunikatiboa, ez dugu ahaztu behar erreferentzi puntu direla ikasleentzat.

Irakasleek hizkuntza arauak erabili behar dituzte eta baita irakatsi ere, baina gehiegizko purismoan erori gabe. Zuzen adierazten saiatu behar dute arauak dagokienez, hizkuntza estandarren erregistro espresibo guztien erabilera sustatu behar dute. Ez dira arauak baztertu beharrik modu jatorrean hitz egiteko.

## **2.2. Hizkuntza eta komunikazioaren garrantzia sozializazioan eta ingurunearekiko egokitzapenean**

De Miguel, Etxebarria, Jaussi, Mendia & Ruizek (2006) hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenean esku hartzearen nolakotasuna zehazten dute eredu inklusibo batean. Beraien ustez, eskola inklusiboaren helburuetako bat da ikasle guztiei oinarritzeko tresnak ematea eskola arrakasta lor dezaten eta ikaskuntza horrek ikasle guztiei aukera eman diezaien gizartean era positibo eta eraikitzailean kokatzeko. Helburu hori gogoan, eskolaren funtsezko zeregina da ahozko hizkuntza eta pertsonen arteko eta gizarteko komunikaziorako gaitasuna eskuratzea. Beraz, irakasle guztiei gogorarazi behar zaie gaitasun hori garatzeko premia, eta ahalegin betean jardun

---

behar dutela zeregin horretan gelako eguneroko lanean, ahozko hizkuntzaren eskuratze eta garapenean etengabeko hobekuntza sustatuz.

Hizkuntza funtsezko tresna eta bidea da sozializazio-prozesuan, inguruari egokitzeko eta inguruan integratzeko aukera ematen duelako, baita gizarte-testuinguruari dagozkion balioak, sinesmenak, iritziak, ohiturak... eskuratzeko ere. Hartara, hizkuntzaren garapena da hezkuntza sistemaren helburuetako bat.

Eskola inguruko gizartearen isla izan behar du eta bertako ikasleak gizarte plural horretan modu eraginkorrean mugitzeko prestatu behar ditu. Eskolako hezkuntza proiektua eskolaren planifikazioaren lehenengo pauso teoriko gisa ulertu behar da, hezkuntza komunitatearen oinarrizko erreferentzia bezala. Hizkuntzaren irakaskuntzarako proposamena definitu ahal izateko, lehenengo, inguruaren beharren hausnarketatik abiatu behar da. Ondoren, helburuak definituko dira ekintza ezberdinak zehaztu ahal izateko.

Cassany et al.-en (1994) arabera, hizkuntza irakastearen ikuspegian zentratuz, eskola normalizazio linguistikoaren bultzatzaile dela diote eta ondorioz, hizkuntzari dagozkion erantzukizunak dituela. Eskolako proiektu linguistikoak eskolak bere estrategia propioa planifikatzeko balio behar du bere ezaugarrietatik abiatuz (ikasleen maila soziokulturala, irakasleek duten hizkuntzaren domeinua etab. kontuan hartuz). Modu honetan lortuko lirateke benetako normalizatorako ekintzak edo zentroaren beharrei erantzuten dien egokitzapen linguistikoak.

Eskolaren helburuak ondokoak lirateke: hizkuntza baten ahozko eta idatzizko presentzia %X-ean handitzea gelan; herriko beste elkarteekin erlazionatzea, inplikatzeko eta kolaboratzea; familiei eta gainerako irakasleei kolaborazioa, parte hartzea eta inplikazioa eskatzea; eta hizkuntza horren erabilera eremu ezberdinetan bultzatzeko ekintzak sustatzea.

Hizkuntza proiektua barne hartzen duen eskolako proiektu propioa diseinatu duten eskolek badakite nola egin behar diren hizkuntza bakoitzari dedikatutako eskola orduen banaketa; eskolako liburutegiaren osaera nahiz banaketa linguistikoak; testu liburuen eta irakurtzeko liburuen aukeraketa; eskolak bere egiten dituen festa eta

tradizioen aukeraketa eta ospakizuna; eta barneko nahiz kanpoko galdekizun eta dokumentuak zein hizkuntzetan erredaktatu behar diren zehaztea.

### **2.3. Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren arteko distantzia**

Hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, hizkuntza gehienetan, ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren artean distantzia handia dago. Hizkuntza ez normalizatuen kasuan, interferentzia asko sufritzen dituzte eta idatzizko hizkuntzaren arauetan bilatzen da segurtasuna. Ahozko hizkuntzarentzako ere araua bilakatzen da erreferentziatzat. Hori dela eta, irakasle askok ahozko hizkuntza zorrotzegia eta zuzenegia erabiltzen dute, ahozko hizkuntza arruntetik urrun dagoen eredu erabiltzen dute.

Garrantzitsua da ezberdintzea alde batetik, hizkuntza idatzia eta ahozko hizkuntza ulertzeko gaitasuna izatea eta hauek erabiltzeko edo ekoizteko gaitasuna izatea, bestetik. Ikasle guztiek jakin behar dute hizkuntza batean ezberdintasunak daudela (euskalki ezberdinak, adibidez) eta irakurri beharreko testua ulertzeko ez dute zailtasunik eduki behar, ezta eskualde bateko adierazpenak eta formak agertzen diren ahozko hizkuntza ulertzeko ere.

Honetaz gain, ikasleek egoera eta pertsona ezberdinei zuzentzen ikasi behar dute. Ez da berdina gurasoekin eta lagunekin erabiliko dugun hizkera arrunta edota ezezagunekin, irakasleekin etab.-ekin erabiliko dugun hizkera zehatzagoa, formalagoa eta objektiboagoa.

Hizkuntza irakasterakoan, hizkuntza komunikazioa dela kontuan hartu behar dugu eta batez ere ahozko hizkuntza. Ahozko hizkuntza bitzita sozialaren ardatza da, kultura guztietan komuna dena, baina hizkuntza idatziarekin ez da hori gertatzen. Hizkuntza idatzia beste zerbait da, komunikazioaren beste estadio bat. Hizkuntzak ikasleei euren ingurunera egokitzeko eta bertan jarduteko gaitasunak eta ezagutza minimoak eman behar dizkie, adibidez, trenen ordutegiak interpretatzea, notizi batensubjektibotasuna eta intentzio txarraz ohartzea, galdekizun bat betetzea, etab. Honez gain, autonomia pertsonala eskuratzen lagundu behar du hizkuntzak. Hizkuntzaren irakaskuntza egokia bermatzeko, irakasleak garbi izan behar du ikasleen garapen linguistikoaren maila zein

den, bai talde osoarena eta baita bakoitzarena ere. Hori kontuan harturik ikaskuntza estrategiak diseinatu beharko ditu.

De Miguel et al.-en (2006) arabera, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenean nola esku hartu behar dugun zehazten dute eredu inklusibo bati begira. Eskolak hurrei eskaini behar dizkien hizkuntza-ereduak esanahietan aberatsa behar du, argia eta ongi egituratua; baina, oroz gain, ingurune naturaletan komunikazio egintzak sortzeko aukera anitz eskaini behar die. Eskolak, hortaz, komunikaziorako esparru behar du izan, ikaskuntza oharkabea eta esanguratsua bultzatuko duena. Autore hauek ondokoak ezberdintzen dituzte:

Hizkuntzaren gizarte-funtzioak: Informazioa eskatu eta konpartitzea; sentimenduak adieraztea; gainerakoek portaera erregulatzea; adimen-egoerak konpartitzea (asmoak, emozioak, irudikatutako mundu eta gertakariak; negoziatu eta aditu ezinak konpontzea; talde bateko kide sentitzea (onartzea...); autoestimua jasotzea (autoeraginkortasuna, etab.) gizarteko kide diren aldetik, etab.

Hizkuntzaren erabiltzailearen hizkuntza-trebetasunak: Ulergarritasuna; diskurtsoaren kohesio-elementuak; bakoitzaren ekarpenei koherentzia ematea, baita gainerakoek ekarpenekin lotuta ere; adierazpenak entzule jakinei argi eta garbi zuzentzea; solaskide bati baino gehiagori hitz egiteko gauza izatea hizketaldi berean; egoki erantzutea; eta gainerakoek ekarpenak ere aintzat hartzekoak direla onartzea.

#### **2.4. Adimen linguistikoa eta hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna**

Larsen eta Bussek (2008) nortasunaren psikologiaz luze hitz egiten dute, batez ere giza izaerari buruzko jakintza-eremuei buruz euren liburuan. Gardnerrek (1983) definitutako adimen anitzen teoriaz hitz egiten dute. Bertan, 8 adimen mota sailkatu zituen: inteligentzia logiko-matematikoa, inteligentzia linguistikoa, inteligentzia espaziala, inteligentzia musikala, gorputzaren bidezko inteligentzia, adimenintrapertsonala, inteligentzia interpertsonala, inteligentzia emozionala eta inteligentzia naturalista. Inteligentzia linguistikoari dagokionez, hitzak, ahoz nahiz idatziz, modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna litzateke. Inteligentzia honek, hizkuntzaren sintaxia, semantika, egitura, fonologia eta hizkuntzaren soinuak egoki

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

maneiatzea barne hartzen du eta baita hizkuntzaren erabilera praktiko egokia ere. Erabilera hauetako batzuk erretorikoak dira (hizkuntzaren erabilera beste pertsonak ekintza bat egiteko konbentzitzeko), mnemotekniak (hizkuntzaren erabilera informazio zehatzez oroitzeko), azalpenak (hizkuntzaren erabilera esplikatzeko) eta metalinguistikoa (hizkuntza erabiltzea hizkuntza beraz hitz egiteko). Beraz, inteligentzia linguistikoa eta ondorioz gaitasun linguistikoa garatu beharreko adimena da.

Nafarroako Gobernu eta Hezkuntza Departamenduak (2008) Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko plana plazaratu zuen eta bertan ere, oinarrizko gaitasunez hitz egiten da. Plan honen xedea, ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko erreferentziako lanabes bat izatea eta esparru orokor bat eskaintzea da, zeinetan biltzen diren europar helburuak, nazionalak eta erkidegoarenak, ikastetxe bakoitzaren helburu berariazkoekin batera. Plan horretan, orientabide gisa, helburuak, xedek eta jarduketa zehatzak eskaintzen zaizkie ikastetxeei, horietaz balia daitezen beren berariazko errealitatera hobekien egokitzen direnak hautatzeko eta lehentasunak finkatzeko.

LOE-ren arabera, Europar Batasunarentzat oinarrizko gaitasuna testuinguruari egokitutako trebetasunen, ezagueren eta jarreraren konbinazioa da. Europan emandako gomendioen ildotik, curriculum berriek oinarrizko zortzi gaitasun ezarri dituzte, eta horiek gauzatzeko lagungarri dira arlo eta gai guztiak: Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna; matematikarako gaitasuna; mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna; informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala; gaitasun soziala eta herritartasuna; arte eta kultur gaitasuna; ikasten ikasteko gaitasuna; eta autonomia eta ekimen pertsonala.

Aipatutako oinarrizko gaitasunak hobetzeko plan hori garatu beharreko zortzi gaitasunez dihardu. Horietako bakoitza ezagueraren gizartean arrakasta izateko lagungarri izan litekeelako dira garrantzitsuak. Gaitasun horietako asko elkarrekin gainjartzen dira eta funtsezko alderdi jakin batzuk beste esparruetako gaitasuna bultzatzen dute. Hizkuntzan, irakurketan eta idazketan, kalkuluan eta informazio eta komunikazioko teknologietan (IKT) oinarrizko gaitasunak izatea oinarri sendoena da ikasteko, eta ikaskuntza jarduera guztiak dira ikasten ikasteko ahalmenaren oinarri.

---

Helburu horiek erdiesteko eratu den antolakuntza esparrua curriculum arloek osatzen dute.

Plan horretan, hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna era zabalean azaltzen da. Azalpen horren arabera, hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna, hizkuntza ahoz eta idatziz komunikatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, ezagupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera antolatu eta autoerregulatzeko tresna gisara erabiltzeari dagokio. Gaitasun hori ezinbestekoa da besteekin eta ingurunearekin lotura eta harreman konstruktiboak ezartzeko eta ezagutzen diren heinean onartzen diren bestelako kulturetara hurbiltzeko gaitasunak garatzeko. Horregatik, hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna elkarrekin bizitzeko eta gatazkak konpontzeko trebetasunaren barnean dago.

Hizkuntza, komunikazioko tresna izateaz gainera, mundua irudikatzeko bide bat da eta pentsamenduaren eta ezagueraren oinarrian dago, bide ematen du nor bere buruarekin komunikatzeko, arazoak aztertzeko, planak prestatzeko eta erabakiak hartzeko prozesuei ekiteko. Honez gain, azpimarratzekoa da, halaber, komunikatzeko gaitasuna osatzen duten estrategiak hizkuntza jakin batean eskuratzen direla, baina hala ere, kontua ez da hizkuntza konkretu bat erabiltzen jakitea, hizkuntza zentzu orokorrean erabiltzen jakitea baizik, horrek aukera ematen baitu hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuk ikasteko balio izateko, eta ezagupen horiek guztiek handiagotzen dute hizkuntza zentzu orokorrean erabiltzeko gaitasuna.

Hezkuntza Departamenduaren (2008) oinarrizko gaitasunak garatzeko planean, Komunikazio-trukeen sortzaile den talde-lana sustatuz, adierazpen eta argudioak argi azaltzen trebatuz, norberaren irizpidea era arrazoituan azalduz eta besteen adierazpenak adituz, norberaren ulermena eta izpiritu kritikoa garatzen direla dio eta komunikatzeko trebetasunak hobetzen. Informazioa antolatzeko, memorizatzeo eta berreskuratzeo teknikak garatzeak, adibidez, laburpenak, eskemak edo mapa kontzeptualak alde batetik, eta aldez aurreko plangintza prozesuak, baliabideen kudeaketa, etengabeko berrikuspena, emaitzen balorazioa eta kasu baten aitzinean



hainbat eratako erantzunak sortarazteko malgutasuna bestetik, asko laguntzen du ikasketa-trebetasunak hobeki eta modu eraginkorragoan lortzeko.

Planean proposatzen diren hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasunaren hobekuntza helburuak ondokoak dira: Mintzamina eta idazmina hobetzea curriculumeko hizkuntza guztietan; Curriculumeko arlo guztiak irakasteko irakasleek erabiltzen dituzten testuliburu edo bestelako materialen irakurmena hobetzea; Irakurtzeko ohitura eta zaletasuna hobetzea; Hizkuntzaren erabilpena hobetzea, errealitatearen berdintasuneko ikuspegia transmititzeko laguntza izan dadin; Trebetasun metakognitiboak hobetzea eta hizkuntza-gaitasunen transferentziak planifikatzea.

Helburu hauek banaka hartuta, helburu bakoitzaren xedeak eta ekintza zehatzak zein diren ikusteko, jo *1. eranskinera*.

### **2.5. Testu tipologia eta didaktikaren funtzionaltasuna**

Bilbatuak (2000) euskara modu funtzionalago batean irakastearen garrantzia azpimarratzen du. Honi jarraikiz, euskara irakasteko metodoen sailkapena egiten du irizpide ezberdinen arabera. Richards, J. eta Rogers-ek (1986) proposatutako irizpideetan oinarritzen da Bilbatua. Lehenik, metodologiaren oinarrian dauden ikuspegiak aipatzen ditu: hizkuntzaren izaerari buruzkoak (iturburu epistemologikoa), hizkuntzak ikasteko prozesuari buruzkoak (iturburu psikologikoa) eta hizkuntzak irakasteko prozesuari buruzkoak (iturburu pedagogikoa). Bigarrenik, curriculum antolatzeke irizpideak lirarteke eta hirugarrenik, jarduera didaktikoak antolatzeke irizpideak, hots, ikasleei proposatzen zaizkien jarduerak eta irakaslearen esku-hartze motak.

Bilbatuak (2000) lan berean dio jarduera didaktiko guztiek oinarrian teoria inplizitu ala esplizitu bat daukatela, hala nola hizkuntzaren izaerari buruzkoa (iturburu epistemologikoa), hizkuntzak ikasteko prozesuari buruzkoa (iturburu psikologikoa) eta hizkuntzak irakasteko moduari buruzkoa (iturburu pedagogikoa). Iturburu hauekin erlazionatutako printzipioek osatzen dute metodologia bakoitzaren ikuspegia.

Hizkuntzaren izaera eta funtzionamenduari buruzko ikuspegia aztertzen da besteak beste. Iturburu epistemologikoaren barruan, ikuspegi funtzionalaz dihardu. Ikuspegi

honek hizkuntzaren alderdi komunikatiboa hartzen du oinarritzat. Hizkuntza esanahi funtzionalak adierazteko tresna gisa aztertzen du, eta hortik sortzen da hizkuntzaren alderdi semantikoak eta komunikatiboak zehazteko ahalegina.

Ikuspegi diskurtsiboari ere garrantzia ematen zaio. Ikuspegi honek hizkuntzaren alderdi komunikatiboa hartzen du oinarritzat. Ikuspegi honentzat testuinguru desberdinetan sortzen diren ekoizpen linguistikoak testu eta diskurtso mailan antolatzen dira eta beraiek dira hizkuntzaren funtzionamendua azaltzeko errealitate bakarrak. Ikuspegi interaktiboari dagokionez aldiz, ikuspegi honentzat hizkuntzak ikasteko abiapuntuak honokook dira: gizakien arteko interakzioak eta hauek ahalbideratzen dituzten egoera komunikatiboak. Bruner-ek garatutako teoriak eragin handia izango du ikuspegi honen hedapenean. Autore honentzat komunikazioa garatzeak inplikatzeko du, alde batetik, hitzak eta enuntziatuen esanahiaz jabetzea eta, bestetik, forma hauek noiz eta non erabili behar diren ikastea. Bi alderdi hauek garatzeko umeak heldu batekiko interakzioa behar du.

Bilbatuak (2000) aipatzen duen bezala, murgiltze ereduaren inguruan garatzen ari den ikuspegi metodologikoa oso egokia da. Ikuspegi honek murgiltze ereduaren antolaketak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu nahi ditu ikasgaiaren irakaskuntzaren bidez umeen 2H lantzeko; horretarako, bi printzipio jorratzen ari dira: alde batetik, 2H-ren irakaskuntza, ingurunea, ezagutza eta hizkuntza uztartuz, proiektu globalizatzaileen bidez lantzea; eta proiektu globalizatzaile bakoitzaren bidez testu baten lanketa sistematikoa egitea, bestetik. Proiektuak dira sekuentziaren ardatz, proiektua hasieratik ezaguna da umeentzat eta, alderdiren batean edo bestean negoziatuta, irakaskuntza-ikaskuntza gauzatzeko balio izango duen markoa zehazten baitu.

Aurrekoarekin lotuta, Bernárdez (1995) autoreak testuen tipologiaz dihardu besteak beste. Saillapen horretan, testu mota ezberdinak ditu zeinak testuinguru faktoreez (gaia, helburua, igorle-hartzaile harremana, etab.) eta faktore testualez (aukera linguistikoak, aditzak, etab.) ezaugarritzen diren. Ondokoak dira testu motak bere arabera: deskribapenezkoak, narraziozkoak, azalpenezkoak, argudiozkoak eta

instrukziozkoak. Testu mota ezberdinak landu behar dira hizkuntzaren irakaskuntza egokirako.

## **2.6. Irakurriaren ulermenerako estrategiak**

Solé (1992) autoreak irakurriaren ulermena ziurtatzeko estrategiak proposatzen ditu bere liburuan. Bertan, irakurritakoa ulertzea oso garrantzitsua dela azpimarratzen du eta irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren landu beharreko estrategiak irakatsi behar dizkiegula ikasleei dio ulertu dutela bermatzeko.

Lehenik eta behin, irakurri baino lehen erabili beharreko estrategia batzuk proposatzen ditu. Irakurleak ezer baino lehen, irakurri behar duena zertarako irakurri nahi duen galdetu beharko lioke bere buruari. Gero testuari begirada orokor bat eman beharko lioke, euskara mota zein den aztertzeko, etab. Ondoren, izenburua, azpigituluak, irudiak, argazkiak, etab. aztertu beharko lituzke. Testuaren egiturari buruzko hipotesi bat egitea ez legoke batere gaizki. Burutu behar duen irakurketaren helburua zein den argi eduki beharko luke, eta azkenik, testua kokatu beharko luke.

Irakurketa gauzatzen den bitartean, irakurlearen ulermenezko ahalegin gehiena gertatzen da, eta estrategia ezberdinak irakurleak bere ulermena erregula dezan daude pentsatuta. Irakasleek eta ikasleek testu bat edo testuaren zati bat irakurri behar dutenean, isilik edo ozenki irakur dezakete zati hori. Irakurri ondoren, irakasleak ikasleak gidatzen ditu lau estrategietan oinarrituz.

Hasteko, taldeari irakurritakoari buruzko laburpena egiteaz arduratzen da, hau da, irakurritakoa laburki azaltzen die, eta honen adostasuna eskatzen du. Gero argibideak edo azalpenak eska ditzake, testuak agertzen dituen zalantza jakin batzuei buruz. Zalantzak argitzea norberaren buruari testua ulertu den ala ez galdetzea izango litzateke. Ondoren, umeei galdera bat edo batzuk egiten dizkie eta hauen erantzunak testuan aurkitu beharko dituzte. Jarduera hau egin eta gero, ondoren irakurriko denari buruzko iragarpenak ezartzen ditu, hau da, testuan aurkituko denari buruzko neurriko eta arrazoimenezko hipotesiak ezartzen dira. Horrela, zikloa berriro hasiko litzateke, baina oraingoan beste "arduradun" bat aukeratuz, irakasleak beti paper hori burutu ez dezan. Arduraduna aukeratzeko orduan, talde txikiak edo bikoteak antolatzea egokia litzateke, horrela, partaide bakoitzak eginkizun gidatzailea hartzeko.

Bestetik, gomendagarria izango litzateke sekuentzia edo hurrenkera finko bat beti ez jarraitzea, eta partaideek gehiago parte hartzeko ere, modu ezberdinak planteatzea beraiek ere galderak egin ditzaten, ez soilik arduradunek. Solé (1992) autoreak lan berean aipatzen duenez, irakurketa prozesua irakurketa-egoera ezberdinetara, irakurketan parte hartzen duten ikasleetara eta ezarri diren helburuetara egokitzea beharrezkoa da. Nahitaezkozat jotzen duen beste aspektu bat irakurketaren zeregina behar bezala planifikatzea da, baita ikasleak behatzeko aukera egotea ere, irakasleek hauek momentu oro ebaluatu ahal izateko.

Azkenik, irakurri ondorengo estrategiak proposatzen ditu. Alde batetik gainerako irakurleekin edukiaz eta testuaren egituraz hitz egin daiteke. Testuko komunikagarritasun ahalmena ebalua daiteke. Bestetik, zuzentasun gramatikalaz iritzia eman daiteke. Gero, irakurleak irakurritako informaziotik garrantzitsuena aukeratu eta honekin, mapa kontzeptuala, eskema edota diagrama bat osa dezake. Honen ondoren, sintetizatu, laburbildu eta jaso duen ezagutza berriari buruz informazio gehiago lortu dezake, eta ondoren hau gainontzekoei pasatu. Gaiari buruz ere galdera berriak proposa ditzake eta azkenik, ahoz testuak dioenaz eta testuari buruz irakurle guztiek daukaten iritzia eztabaidatu daiteke.

Irakurtzeko garaian hurrek dituzten zailtasunei erreferentzia eginez, ozen irakurtzean zailtasun batzuk agertzen dira, eta isilean irakurtzean, aldiz, beste batzuk. Ume batek ozen irakurtzen duenean, normalean zailtasunak bi motatakoak izan ohi dira; batetik, zailtasunak testua osatzen duten hitzak ezagutu eta ahoskatzeko orduan, eta bestetik etenak eta zalantzak, bai ulertzen ez dutelako, eta baita deskodetzeko arazoak dituztelako ere. Izan ere, lehen aipaturiko ikerketan ondorioztatu izan dutenaren arabera, testuari "lotuegi" dauden umeei irakurtzeko orduan eten asko izaten dituzte. Hau, idatzizko testu bat ongi ulertzeko, lehenago ahoz ongi irakurtzea beharrezkoa dela betidanik uste izan delako gertatzen da, eta hurrek hau barneratu dute baita ere. Kasu hauetan, hurrari testua deskodetzeko eskatu beharko zaio, hitzez hitz ongi ahoskatzen eta hauen esanahia ongi ikas dezan.

Halaber, eskoletan bereziki irakurketa isila lantzen da eta kasu honetan, ikasleek irakasleengana jotzen dute askotan, hitz batzuekin oztoporen bat aurkitzen dutenean

normalean. Nahiz eta irakasleari galdetzea txarra ez izan, ohitura txar bat bihurtzen da soilik irtenbide hau erabiltzen badute. Solék (1992) diotenaren arabera, hurrei beren kabuz ulertzen ez dituzten hitzak azpimarratzen eta hauei buruzko informazioa bila dezaten utzi beharko diegu. Aipaturiko ikerketan, adibidez, hurrek ulertzen ez zituzten hitzak azpimarratzen zituzten, baina irakurtzen zihoazen heinean, hitz horien esanahi koherentea edo orokorrean irakurritakoaren mezua ulertzen zutela atera zen.

Bukatzeko esan, irakaslea uneoro ikasleen eredu dela. Alde batetik irakasleak paragrafo bakoitzaren amaieran, ikasleei hauei buruzko iragarpenak egitea egokia litzateke. Bestetik, bere zalantzak ere erakutsi beharko lituzke, galderak eginez, zer-nolako arazoak izan dituen irakurtzen zihoan heinean esanez, etab.

### **2.7. Curriculumak hizkuntzen tratamendu integratuari buruz dioena**

Nafarroako Gobernu eta Hezkuntza Departamenduak (2007) zehaztutako Lehen Hezkuntzako curriculumean, hizkuntzen tratamendu integratuari dagokionez, derrigorrezko hezkuntzaren xedea da pertsonaren garapen integral eta harmoniatsua, alderdi intelektual, afektibo eta sozialetan garatzea. Garapen horren funtsezko osagaia hezkuntza linguistiko eta literarioa da. Hizkuntza irakasgaiaren helburua komunikatzeko gaitasuna garatzea da. Komunikatzeko gaitasuna da gizarteko arlo desberdinetan modu egokian elkar eragiteko hizkuntzari buruz eduki behar diren ezagutzen eta erabilera-prozeduren multzoa.

Hezkuntza literarioak alde aurretiko ikaskuntza multzo bat behar du eta komunikatzeko gaitasuna pentsamenduak, sentimenduak eta egitateak, ahoz zein idatziz, adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna da.

Hizkuntzaren arloan, hizkuntzaren erabilerari garrantzia handia ematen dio curriculumak, eskoletan izan behar duen lehentasuna azpimarratuz. Idatzizko nahiz ahozko testuen produkzio gidatua ahalbidetu behar da, ereduak aurkeztuz edo analizatuz eta haien sormenezko imitazioa eginez. Horrela, baliabide eraginkorra izanen da trebetasunak (ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena) integratzeko eta hizkuntzen tratamendu integratua lortzeko.

Honez gain, testu mota ezberdinak lantzeari garrantzia ematen zaio eta baita genero ezberdinetakoak aurkezteari ere. Edukietan, trebetasun eta estrategiak planteatzen dira eta edukiak bost multzotan banatzen dira: entzutea eta ulertzea; irakurtzea eta idaztea; hezkuntza literarioa; hizkuntzaren ezagutza eta hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta. Lehenengo bi multzoak, hots, trebetasun linguistikoei dagozkien ulertzea eta hitz egitea alde batetik eta irakurtzea eta idaztea, bestetik, berezirik agertzen diren diskurtsoak dira. Hala eta guztiz ere, ahozko erabilera formalak eta idatzizko erabilerak alderdi asko dituzte batera (aldez aurretik ezarritako gaia, edukiaren plangintza, etab). Ahozko erabilera ez-formalak (espontaneoagoa, hurbilekoagoa) elkar trukerako arauen bidez tokiko hizkerekin, hiztunek behar bezalako komunikazioa lortzeko aukera ematen du.

Curriculumak testuei dagokienez, idatzizko gaitasuna funtsezkotzat jotzen du, hau da, irakurritakoaren ulermena eta ekoizpena lantzea derrigorrezkotzat jotzen du. Bestalde, ahozko gaitasuna ere ezinbestekotzat du, hots, entzundakoaren ulermena eta mintzamen ekoizpenak. Beraz, lau trebetasun garatubehar dira: entzumena eta irakurmena (ulermenari dagozkionak) eta mintzamina eta idazmena (ekoizpenei dagozkienak). Gaitasun hauek garatzeko, ahozko nahiz idatzizko testu mota ezberdinak erabiliko ditugu eredu gisa, euskarri ezberdinekin.

### **3. MATERIAL ETA METODOAK**

*Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6. mailan* izeneko proiektu hau Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoko behaketan zentratzen da. D ereduko ikastetxea dugu berau eta bertan praktketan ari nintzen bitartean, behaketa eta dokumentazio lanetan aritu nintzen.

Lehenik eta behin, lan honen helburuak eta abiapuntuak zeintzuk izan behar ziren zehaztu nituen, hau da, zer jakin nahi nuen eta helburuak zein izango ziren planteatu nituen lehenengo puntuan zehaztu bezala.

Nire behaketa atal ezberdinetan banatzen da eta modu honetan egingo dut hauen azalpena ere.

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

### 3.1. Hizkuntzaren didaktika eraginkor baten bila: sistematizazioa

Lehenik eta behin, Elorri ikastetxearen irizpideetan hizkuntzari ematen zaion pisua nabarmentzen dela esan beharra dago. Honela zehazten dituzte irizpideak:

1. Denon parte hartzearen, banakako ahaleginaren eta talde lanaren garrantzia eta beharra.
2. Planteamendu pedagogiko berrietan aritu eta sakontzeko asmoa.
3. Aniztasunaren aberastasuna eta erabilgarritasuna.
4. Hizkuntzaren garrantzia kalitateko hezkuntzan.
5. Kalitatezko hezkuntzaren garrantzia eta beharra pertsona, erkide eta hiritar moduan garatzeko.

Elorri ikastetxea D eredukoa izanik, euskararekiko duten sentsibilizazioa begi bistakoa da eta hori dela eta *Euskara sustatzeko plan estrategiko bat* burutu zuten hiru urtetarako, helburuak zehaztuz eta hauek lortzeko ekintzak zenbatuz.

Ikastetxean, irakaskuntza-ikaskuntza eraginkorragoa izan dadin, errealitateko beharretatik abiatzen dira, hau da, kanpo frogetatik eta barne frogetatik ateratako emaitzak aztertzen dituzte eta puntu ahulak zeintzuk diren identifikatu ondoren, hauek hobetzeko jarduerak ezartzen dituzte.

Kanpo frogetan ateratako emaitzak (4. mailan egiten den Ebaluazio Diagnostikoa eta PISA, batez ere) eta barne frogetan ateratako emaitzak (6. mailan euskararen eta matematikaren pasatzen zaizkien ikastetxeko probak) aztertzen dituzte. Ondoren, indar guneak eta ahul guneak identifikatzen dituzte. Ahul gune horiek nola hobetu behar diren hausnartzen dute ikasturte horretarako *Hobekuntza Plana* osatzen dute, non ziklo bakoitzerako helburuak eta ekintza ezberdinak adosten dituzten.

Normalean, hizkuntzaren arloan eta matematika arloan izaten dira hobetzeko jarduerak. Nire ikerketan zentratuz, hots, euskararen arloan, irakurriaren ulermena hobetze aldera lortu beharreko helburuak zehazten dituzte ziklo bileretan eta baita egin beharreko jarduerak ere. Honen barruan, zein testu landuko diren hautatzen dituzte, irakurriko diren liburu kopurua, ahozkoaren ulermena nola landuko duten (estrategiak...), zein entzunaldi egingo diren, zein produkzio eskatuko zaizkien, etab.

Helburu eta jarduera minimoak adosten dituzte eta hortik aurrera, irakasle bakoitzak gehiago burutu nahi baditu, norberaren esku geratzen da.

Hobekuntza plan hau urtero egiten dute, errealitateko egoeratik abiatu. Ondoren, konpromisoak hartzen dituzte. Honez gain, irakurmenaren eta idazketaren ebaluazioak ere egiten dituzte. Hobekuntza plan hau amaieran ebaluatu egiten dute.

Aipatutako hausnarketa hori egiteko eta ekintzak adosteko Elorri erabiltzen dituzten txantiloiak ikusteko jo *2. eranskinera*. Honez gain, adibide erreala bat ikusi nahi izanez gero (egiazko erabakiak etab. agertzen direnak), *3. eranskinean* topa daiteke.

Bestalde, ziklo bilerako akta batean hobekuntza planerako irakurmenaren ulermenean hartutako erabakiak agertzen dira ondorengo irudian:

**AKTA-TXOSTENA**  
**ZIKLO BILERA**



**elorri**

TALDEA	3. ZIKLOA
BILERA Zbkia,	4
ORRI -kopurua	
DATA	2011-11-07
HURRENGOA	2011-11-14

BERTARATUAK	LANDU DIREN GAIAK
Olatz Leñ Manu Ainara	-ILZ tik allegatutako formazio eskaintza -CREENATik allegatutako gonbitea -Hobekuntza Plana (irakurketaren ulermena)

HARTUTAKO ERABAKIAK
-ILZ tik formazio ikastaro baten berri (intranet) zabalzen da zikloan. -CREENATik allegatutako "inteligencia emocional" buruzko hitzaldiaren gonbitea zabaldu egiten da zikloan. <b>HOBEKUNTZA PLANA:</b> Irakurmenaren ulermenari buruzko aldaketak eta konpromisoak finkatu egiten dira: -Denboraren aldetik (ulermenari eskaintzen zaion denbora alegia) ez dugu aldaketarik egingo. 5. mailan bi astetik behin saio bat erabiliko da irakurtzeko. -Froga berriak diseinatuko dira hiru hilabete bakoitzean pasatzeko: ipuina, testu informatiboa eta triptiko informatibo bat. Diseinu/hautaketa lana hauek mailaka egingo dira (maila bilerak) -Frogak honelako itemak izango ditu: %50 galdera zuzenak eta %50 galdera inferituak -Erregistro ereduak finkatzen da (orokorra). Erregistroak 3. zikloko karpeta zintzirikatuak egongo dira irakasleak bete ahal izateko. -Liburutegiaren erabilera: bat gelako edo liburutegiko liburuen irakurketan, gutxienez kopuru bat adosten da: ikasleek 3 liburu irakurri beharko dituzte gutxienez hiru hilabete bakoitzean. -Astean behin gutxienez Berria egunkaria irakurriko da (pantailan) <b>HOBEKUNTZA PLANA:</b> Kanpo ebaluazioan <b>Matematikari</b> buruzko emailzak direla eta irakurmenaren prozesu berdina erabili ari gara: itemak aztertu, diagnostia egin eta neurriak jarri. Oraingoan gainetik itemak ikusi ditugu, aztertu eta hurrengo bileran neurriak hartzen hasiko gara.

## 1. Irudia. Ziklo bileran hartutako erabakiak Hobekuntza Planerako

Hizkuntzaren irakaskuntza eraginkorrenekin konprometituta daude Elorri; aurreko eranskinek erakusten digute era sistematizatu batean lantzeko ohitura dutela. Irakurmenaren eta ahozkotasanaren inguruan hartutako beste erabaki batzuk barne

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan



hartzen dituen erregistro taula bat behatzeko aukera dugu *4. eranskinean*. Hau ere hobekuntza planean txertatzeko egin zuten.

Ikastetxean aipatutako plan hauek euren benetako beharretan oinarritzen dira eta dinamikoak dira, urtero berritzen baitira. Beraz, hizkuntzarekiko konprometituak daude Elorri eta horretara iristeko ezinbestekoa da Zuzendaritza Taldearen inplikazioa. Zuzendaritzak plan zehatzen bidez hizkuntzaren didaktika eraginkor bat bideratzea ezinbestekoa da.

### **3.2. Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena**

Irakurtzea eta idaztea informazioa bilatu, bildu, hautatu eta prozesatzeko trebetasunak beharrezkoak dituzten ekintzak dira, pertsona askotariko komunikazio-asmoak dituzten testu-mota ezberdinak ulertu eta ekoizteko gaitzen dutenak. Elorri trebetasun hauek eskuratzen laguntzeko, estrategia eta metodo ezberdinak lantzen dituzte.

Elorriko 6. mailan zentratuz, *globalizazioaren printzipioa* egunerokotasunean txertatuta dute. Txanelarekin lan egiten dute eta arloak ez dira ordutegiaren arabera bereizten, hau da, irakasgai gehienak momentuan lantzen ari diren gaiaren inguruan ematen dira. Adibidez, ingurunean “industrializazioa” gaia lantzen ari badira, euskararen arloan industrializazioarekin erlazionatutako testu ezberdinak lantzen dituzte, hau da, industrializazioaren gaien oinarritzen diren ipuinak, azalpen testuak, komikiak, etab. irakurtzen eta ekoizten dituzte. Aipatu, Txanelak liburuarekin batera, irakurgaien liburua ere ekartzen duela berarekin. Arloen globalizazioaren helburua ikaskuntza askoz eraginkorragoa izatea da.

Irakurriaren ulermena ziurtatuz, idatzizko testuen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarritzko multzoa garatzen da. Modu honetan, egungo ezagutzaren gizartean funtsezkoak diren informazioaren tratamendu eta hautaketarako oinarritzko trebetasunak lortzen dira.

Idazmenarekin, idatzizko testuak ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarritzko multzoa garatzen da. Testu ezberdinak ekoiztu behar dira, komunikazio-

egoera anitzetara egokituak, edukiaren antolaeran koherenteak eta testualki bateratuak, eta alderdi formaletan zuzenak izango direnak.

### **3.2.1. Idatzizko testuen ulermena (irakurketa)**

Testuinguru jakin batean irakurlearen eta testuaren artean gertatzen den elkarreraginak agerian uzten du irakurketaren hiru dimentsio hauen garrantziak: zein egoeratan gertatzen den, egilearen asmoari eta irakurketaren xedeari dagokionez; testu eta testu-genero motak; eta irakurritakoari esanahia ematea ekartzen duten ulermen prozesuak. Horretaz gainera, irakurlearen jarrerak eta irakurtzeko azturak ezinbestekoak dira irakurketara hurbiltzerakoan.

Hizkuntza ikaskuntza guztien ardatza da eta testuen ulermena ezinbestekoa da ikaskuntzarako eta edukietan aurrera joateko. Testu mota ezberdinak arlo guztietan aurki ditzakegu eta hauen lanketa modu zuzenean edota zeharka lantzen dira.

Matematikan adibidez, azalpen testuak (teorien azalpena adibidez) eta testu informatiboak (grafikoek eta taulek ematen diguten informazioa) nabarmentzen dira eta hauen ulermena bermatzea ezinbestekoa da horretarako estrategia ezberdinak aplikatuz. Buruketetan ere, ulermena ziurtatzea beharrezkoa da eta horretarako, buruketak zer eskatzen duen azpimarratu egiten dute (galdera). Bestalde, ematen dituen datuak era laburtuan jartzen dituzte. Askotan, arbela digitala eta lupa erabiliz, problemak denon artean egiten dituzte edota zuzentzen dituzte. Luparekin, liburuko edo beste errekurtsio bateko problemari argazkia ateratzen dio tutoreak eta ondoren, berau pantaila digitalean proiektatzen du. Honela, guztiek ikusteko moduan geratzen da eta pantailan bertan idazteko, azpimarratzeko, ariketak egiteko... aukera izaten dute. Honela, problemaren ulermena askoz eraginkorrago bilakatzen da. Oso baliabide egokiak dira teknologia berriak ulermenerako.

Euskarari eta gaztelania arloetan testu mota ezberdinen lanketa funtsezkoa da. Narraziozko testuak eta hauen barnean aurki ditzakegun genero ezberdinak, azalpenezkoak, informatiboak, etab. aurkitzen ditugu.

Ingurunean, Txanela proiektuaz gain, beste baliabideetatik jasotako testuak eta jarduerak ere lantzen dira modu osagarrian. Hauek gaiarekin lotutako literatur Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

produktuak (ipuinak, abestiak, olerkiak, komikiak...), azalpenezko testuak, testu informatiboak, etab. izan daitezke. Txanelaren web gunean ere, jarduera osagarriak proposatzen dira eta oso erabilgarriak dira testuen ulermena lantzeko ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Bestelako web guneetatik, blog-etatik, aldizkarietatik eta abarretatik hartutako testuak ere erabiltzeko ohitura dute Elorrin. Modu honetan, ez dira testu liburura mugatzen.

Txanelak gaiak antolatzeko duen modua eta planteatzen duen metodologia nahiko aberatsa da. Lehenik eta behin, gai berri bat aurkeztu aurretik beti ikasleen aurrezagutzak azaltzeko jarduerak aurkezten ditu eta gaia girotzeko beste jarduera anitzak planteatzen ditu. Ondoren, azalpen testuak, testuen ulermena ziurtatzeko jarduera asko taldeka nahiz bakarka egiteko, gaiarekin erlazonatutako ipuinak, informazio testuak, hausnarketa jarduerak, kontzeptu-mapak...eskaintzen ditu. Tutoreak gustuko du gaiaren puntu garrantzitsu bat azalpen testuen bidez lantzen denean, ikasleek guztien artean kontzeptu-mapa bat egin dezaten arbela digitalean. Modu honetan, kontzeptu garrantzitsuenak zein diren identifikatu, kontzeptu hauek erlazonatu, kausa-ondorioak atera, etab. burutuz, gaia ulertzen dute.

Irakaslearen metodologia beraz, ikasleen ulermena bultzatzean datza, horretarako buru-estrategia ezberdinak irakatsiz ikasleei. Modu honetan, ikasleek ikasten ikastea gaitasuna garatzen dute. Tutoreak oso argi du eman beharreko edukiez gain, estrategia hauek irakasteari denbora dedikatu behar zaiola, hau baita eskola arrakastaren giltza bere ustez. Azalpenak ematean eta azalpen testu bat irakurtzean, irakaslea beti saiatzen da ikasleei hurbileko zaien egoeren adibideak ematen uler dezaten testuan jartzen duena. Ulermen eta ikasten ikasteko estrategia hauek teknologia berrien bidez lantzen ditu (arbela digitala, lupa, tabletak, testu liburuez aparte beste baliabide pedagogikoak web gune ezberdinetatik hartuak, etab.). Aipatutako irakaslearen metodologia eta baliabide hauekin, ikasleen aniztasunari erantzuteko erabilgarri dira. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei bereziki oso ongi datorkie ikasteko estrategiak irakastea. Ikasle hauek testua eta edukia ulertzen dutela ziurtatzeari garrantzia ematen dio eta estrategia hauen bidez horretara bideratzen ditu.

Aniztasunari erantzuteko modua da ere IKT-en erabilera gelan. Ikasleak askoz motibatuago daude, klase magistral hutsetatik ihesi, ikasleak inplikatuago daude klasean eta euren parte hartzea handiagoa da. Gelan lan giro hobea sortzen da.

Irakurriaren ulermena, bost gaitasun ezberdinetan antolatzen dute: antolatu, baloratu, identifikatu, interpretatu eta memorizatu. "Antolatu" gaitasunari dagokionez, testu bat irakurri ondoren, datu guztiak ongi antzeman eta antolatzen jakitean datza. Adibide bezala, "Inurriak inurategira" testua irakurri ondoren ikasleei planteatu zitzaien ariketa hau dugu:

### 1. Taula. "Antolatu" gaitasuna.

Ematen dizkizuegun izenburu zerrenda honetatik aukeratu jarraian doazen paragrafoei ongien datorkiena:

Izenburuak:

- Inurriak eta zuhaitzak
- Inurritegiak ez dira harrizkoak
- Eguzkiaren garrantzia
- Inurritegitik ateratzean
- Inurrien garraioak
- Inurrien usaimena

Paragrafoak:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

"Baloratu" gaitasuna, testu batek ematen duen informazioaren balorazioa da. Datuak nahikoak diren, gaia aproposa den eta abarreko informazioa aztertzen dute. Hona hemen adibide bat:

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

## 2. Taula. “Baloratu” gaitasuna.

Markatu zure ustezko erantzuna

11. Erraz ulertu duzu ipuina? Nahiko da ematen den informazioa ondo ulertzeko?

- Bai, ipuin erreza da eta dena ulertu dut.
- Bai, baina badira ulertzen ez ditudan hitz batzuk.
- Nahiko ipuin zaila iruditu zait.
- Oso gaizki idatzitako ipuina da.
- Ez, ez da batere ulertzen.

12. Zure ustez ipuin honek indarra dauka gure bizitzan daukagunaren eta faltan dugunaren inguruan pentsarazteko?

- Bai, hori da ipuinaren helburua.
- Ez, guk ez dugu horrelako gauzetan pentsatzen.
- Bai, gauza gehiegi nahi izatea ez delako oso ona eta hori da ipuinak esaten duena.
- Ez, ipuinaren helburua ez da gu pentsatzen jartzea baizik eta entretenitzea.
- Bai, bizitza honetan gauza asko izatea oso inportantea delako.

“Identifikatu” gaitasunean, testuan sortzen diren zailtasunak edota datu garrantzitsuak identifikatzen jakiteari dagokio. Adibide gisa, “Eskuak” testuaren galderak:

## 3. Taula. “Identifikatu” gaitasuna.

Identifikatu hurrengo kontzeptuak

- Ulertzen ez diren hitzak zerrendatu eta sinonimoak bilatu.
- Ipuinean agertzen diren lanbide ezberdinekin zerrenda bat egin. Ondoren lanbide horien lantokia idatzi.
- Zein da hildako doktorearen izena?
- Nola hil zuten?
- Nor agertu zen komisaldegian?
- Nola heldu zuten eskua?
- Zer bururatu zitzaion epaileari kasua argitzeko?

“Interpretatu” gaitasunean, testuak diotenaren benetako edo ezkutuko esanahia antzematea eta igorlearen mezua harrapatzen jakiteari deritzo. Jarraian, ikasleek ipuintxo bat irakurri ondoren, interpretazio gaitasunak baloratzeko galderak datoz:

#### 4. Taula. “Interpretatu” gaitasuna.

Ipuinaren hartzaileari buruz... Zure ustez norentzako idatzi da ipuin hau?

- Gerrateetan ibili diren pertsona zaharrentzat.
- Bukaera tristeak gustuko dituen edonorentzat.
- Haurren istorioak atsegin dituzten irakurleentzat.
- Euskarako irakasleentzat.
- Errealitatearekin antzekotasunak dituzten istorioak irakurtzen dituztenentzat.

Ipuinaren xedeari buruz... Zure ustez igorleak zer esan nahi digu ipuin honekin? Erantzuna idatziz arrazoitu.

- Gerra batean, babesgabekoenak dira haurrak.
- Gerraren aspektu gordinenak azaldu nahi dizkigu.
- Gizakia bera, beste gizakientzat etsai handiena izan daitekeela.
- Beste zerbaitekin.

“Memorizatu” gaitasuna “Identifikatu” gaitasunarekin oso lotuta dago. Testua irakurri ondoren, identifikatutako datuak haurren buruan gordetzea eta memorizatutako informazio horrekin galderak erantzuten jakiteari deritzo. Adibide bezala, “Belea eta txolarrea” testuaren hainbat ariketa dituzte Elorri:

#### 5. Taula. “Memorizatu” gaitasuna.

Nola engainatzen du txolarreak belea? Borobildu aukerarik egokiena.

- Mokoia garbitzera bidaliz
- Errementariarengana bidaliz
- Agindutakoa betez
- Aran aleak txintxo-txintxo janez

Lotu itzazu ondorengo izenondoak ipuin honetako bi pertsonaia nagusiekin: zintzoa, beltza, zikina, argia, garbia, maltzurra, inozoa, txikia, azkarra

Belea:

Txolarrea:

Gaitasun hauek lantzeaz gain, Soléren teorian oinarrituz, estrategiak lantzen dituzte ulermenerako. Adibide bezala, “Hiru gurariak” testua lantzeko erabilitako ariketak honakoak dira:

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

## 6. Taula. Ulermen estrategien aplikazioa

<i>Irakurri baino lehen lantzeko jarduerak</i>
<p>Esparru semantikoa</p> <p>Definitu zer den "guraria".</p>
<p>Esparru analogikoa</p> <p>Zergatik izango dira hiru gurari? Noizbait esan dizute hiru gurari aukeratzeko? Zeintzuk aukeratu dituzu?</p>
<p>Aurresateko esparrua</p> <p>Zein motatako ipuina izango da?</p>
<i>Irakurri bitartean lantzeko jarduerak</i>
Ezagutzen ez dituzun hitzen edo esaldien esanahia irakasleari galdetu.
<i>Irakurri ondoren lantzeko jarduerak</i>
<p>Gertatzen dena baloratzen dugu (egiantz irizpidea, inplizitua dena eta ez dena, elipsia, gertaerak eta ideiak)</p> <p>Emakumeak eta gizonak hanka sartu zuten eta ez zuten eskatu hasieran pentsatutakoa. Zer pentsatzen duzu horri buruz?</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskatu behar zutena adosteko denborarik ez zutela izan eta normala dela gertatutakoa.</li> <li>▪ Ongi iruditzen zait, gehiegi nahi izateagatik ezer gabe geratu ziren.</li> <li>▪ Maitagarria gaizki portatu zela uste dut, erak bazekien hiru gurari horiek ez zirela benetan nahi zutena.</li> <li>▪ Oso ongi, hitz egin baino lehen gauzak ongi pentsatu behar baitira.</li> </ul> <p>Senarrak, emakumearen samina ikusirik odolostea sudurrean duenean, hartu zuen erabakia egokia izan zen? Zergatik? Zer egingo zenuke zuk?</p>

Arestian aipatutako Hobekuntza Planean, gelan erabiltzen diren testu liburuez gain, irakurmena eta honen ulermena lantzeko beste hainbat testu hitzartzen dira gelan lantzeko. Adibidez, azalpen testu ezberdinak aurkezten zaizkie ikasleei euskara arloan. Hona hemen adibide bat:



## 2. Irudia. Azalpen testua

Azalpen testu bat irakurtzeko aurkeztzen zaienean, normalean bakarka egiten dute. Testuaren ulermena bermatzeko estrategia ezberdinak erabiltzen dira esan bezala.

Ikasle jakin batek irakurketa-ulermenean zailtasunak erakusten dituenean, irakurketa estrategiak irakasten dizkio tutoreak. Estrategia horien bidez ekintza kognitiboak aktibatzen saiatzen dira; irakurketaren helburua ulertaraztea, aurre ezagutzak aktibaraztea, testuan funtsezkoa denari begiratzen irakastea. Irakurri aurretik, testuaren gaiari buruzko informazio orokorra ematen die eta zein motatako testua den esaten die. Honez gain, testuaren gaiaren inguruan ikasleek hitz egin dezaten animatzen ditu tutoreak eta irakurri behar dutenaren inguruko hipotesiak egiten dituzte denon artean izenburuari eta irudiei erreparatuz. Ikasleen artean testuari buruzko galderak egitera animatzen ditu tutoreak.

Irakurri bitartean, normalean, paragrafo bakoitzean hitz egiten denaz laburpentxo bat egiten dute ahoz, inportanteena azpimarratu, etorriko denaren inguruko hipotesiak bota, etab.

Irakurri ondoren berriz, eskemak edo kontzeptu mapak egiten dituzte ideia nagusiak ateraz. Maiz, ikasle baten kontzeptu mapa hartzen du tutoreak ausaz eta luparekin mapa horri argazkia atera ondoren arbela digitalean jartzen du eta denon artean Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan



zuzentzen dute. Laburpenak egiten irakasten die tutoreak, hau da, ideia garrantzitsuak identifikatzen eta orokortzen ikasten dute.

Ulermen estrategiak garatu ditzaten saiatzten dira irakasleak. Ikasleak, euren aldetik, ulermena ebaluatzeko erregistro bat betetzen dute normalean. Betebehar hau testuari buruzko galdera zuzenetan eta galdera inferituetan oinarritzen da maiz. Adibide gisa jarritako testu hori irakurri ondoren, ondorengo egitea eskatu zitzaien:

**TESTUEN ULERMENA**

<b>IZENA:</b>	<b>MAILA:</b>	<b>DATA:</b>
<b>IZENBURUA:</b> Zer dira sexu bidez transmititutako gaixotasunak?		
<b>GAIA:</b>		
<b>IDEIA NAGUSIA:</b>		
<b>LABURPENA:</b>		
<p>o <b>GALDERAK:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zer dira sexu bidez transmititutako gaixotasunak? Definitu eta izendatu.</li> <li>2. Zein gaixotasunetarako ez da oraindik sendabiderik lortu?</li> <li>3. Zer da HIESa?</li> <li>4. Preserbatiboa erabiliz sexu bidezko gaixotasun guztiak ekiditen al dira?</li> <li>5. Zergatik uste alduz ibesa duten pertsonekin egoteko batzuk beldur dira?</li> <li>6. Pertsona batzuek beldur izaten diote HIESa duen pertsonekin bizitzeari, beldurra izan behar dute? Zergatik?</li> <li>7. Zergatik ipini du idazleak, sbisu moduan, preserbatiboa, erabat eraginkorra izateko, sexu harremanetan hasieratik bukaerara erabili behar dela?</li> <li>8. Idatzis irakurri ondoren "sexuarekin ez jolatu" esaldiak zain zentzu du?</li> </ol>		

### 3. Irdia. Ulermenaren balorazioa

Landutako beste azalpen testu baten adibidea kutsadurari buruzko testu bat da.



### 4. Irudia. Azalpen testua

Berau irakurri ondoren, ulermena baloratzeko galdera batzuei erantzun behar zien:

#### ULERMEN GALDERAK

IZEN-ABIZENAK:  
DATA:

- 1- Erantzun galdera hauak.
  - Zein dira kutsaduraren iturri nagusiak?
  - Zer gaitetasun sor ditzake kutsadurak?
  - Zer egin dezakegu kutsadurak gure osasunari kalte guttiago egiteko?
  - Zer esaten dute ozken inkestek?
  
- 2- Esan esaldi hauek zuzenak (z) ala okerrak (o) diren.
  - Datuen arabera, Europan 350.000 pertsona hiltzen dira hilabetean.
  - Pertsonak modu desberdinean erantzuten diote kutsadurari.
  - Ez da egia kutsadura ez dela goko kutsadurataraino iristen.
  - Tabakoa, Asko kutsatzen du, bari bat leku itxietan erretzen denean.
  
- 3- Atera idela nagusia testu honetatik
  
- 4- Testuan aipatzen diren neurriak eraginkorrak iruditzen zaizkizu? Zergatik?

### 5. Irudia. Ulermen galderak 1

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

5- 5-6 lerroan idatzi testuaren laburpena.

.....

.....

.....

.....

6- Lotu hitza dagokion kontzeptuekin eta esaldioi behean idatzi.

▪ Autoa	kutsadura atmosferikoen %20...
▪ inkesta	begieteki nerrihura eta errihila ager...
▪ epe laburrea	ahalik eta kutsadura gutxien sartzeko...
▪ Elikadura	gure herrialdeak bik aise galditzen dituz...
▪ autoaren egeera egokia	osasuengiria hartu.

» .....

» .....

» .....

» .....

» .....

7- Zier egiten duzu gutxiago kutsatzeko?

.....

.....

.....

8- Zier testu mota da? Zergatik uste duzu hori?

.....

.....

.....

## 6. irudia. Ulermen galderak 2

Testuak formatu ezberdinetan ematen saiatzen dira, betiko prototipoetara mugatu gabe, eskolaz kanpo aurki ditzakegun aukerak aprobetxatzen saiatzen dira gelan. Adibidez, aurreko testua “Berria” egunkarian topatutakoa da eta betiko paper zuri eta letra hutsez egindako testu monotonoetatik ihes egiten dute. Testuak askoz ere bisualagoak dira, egungo kultura bisualera egokituz.

Ulermena ebaluatzerakoan ondoko aspektuak eskatzen zaizkie:

- Informazioa berreskuratzea: hitzez hitzeko ulermena eta informazio baliokidea bilatzea.
- Ulermen globala.
- Testua interpretatu eta berregitea.
- Testuaren formaz eta edukiaz hausnarketa egitea.

Informazioa berreskurtzeko galderei dagokienez, irakurritako testuaren gaineko informazio puntuala izanen dugu. Horrela egiaztatuko dugu irakurleak testuaren gaineko aski informazio ote duen. Esate baterako: narraziotestuetan, pertsonaiak zein diren; azalpen testuetan, animalia batek zer ezaugarri dituen adibidez; testu

informatiboetan tren ordutegiak zein diren...Galderak bi motatakoak izan daitezke: hitzez hitz ulertzekoak edo informazio baliokideabilatzekoak.

Ulermen globalerako galderei dagokienez, hauei erantzun ahal izateko testua sakonago ulertu behar da. Irakurleak argudioaren haria zein den antzeman behar izan du eta funtsezkoaren ideia globala izan. Esate baterako: narrazio testuetan, istorioaren funtsa; azalpen testuetan, sustraiko eta funtsezko ideiak; eta testu informatiboetan, oinarritzko informazioa zein den inferitu, etab. Ulermena sakonagoa eta koherenteagoa izanen da.

Interpretaziorako galderetan zentratuz, hauen bidez balioesten da irakurleak pertsonaien arteko harremanak ulertzen ote dituen; narrazio testuetan, pertsonaien eta ekintzen artekoak; azalpen testuetan, elementuen, egoeren, gertakarien eta abarren artekoak; testu informatiboetan grafikoak behatuz ondorioak ateratzen ote dituen adibidez, etab. Hitzez hitzeko ulermenaren ikuspegia baino haratago joateko aukera dugu. Hortik datorkio balioa irakurketari.


Edukiaren hausnarketari eta balioespenari buruzko galderen bidez balioesten da ulermenetik abiatu eta hausnarketaren bidez, norberak testuaren aurrean hartuko duen rola. Ulermen lanak zabaltzeko aukeratzat har daiteke. Esate baterako, galdetzen da istorio batek egiazkoa izateko duen itxuraz; irakurleak pertsonaiei buruz zer iritzi duen; irakurleak zer egingen lukeen halako zerbait gertatu izan balitzaio, etab.

Formaren gaineko hausnarketari eta balioespenari buruzko galderei dagokienez, hauek informazioa ekarri nahi dute irakurleak testua hobeki uler dezan eta laguntzen duten testuzko seinaleetatik informazioa atera dezan, horrela beste gaitasuna landuz. Esate baterako: jakin nahi da ea ikasleak konturatzen ote diren "Behin batean..." hasiera duen testua ipuin bat dela edo marratxoek pertsonaien arteko elkarrizketa markatzeko balio dutela, etab.

Ezinezkoa izanen litzateke jakitea ikasle batek testua ulertu duen edo ez, erantzun zuzenen eta okerren kopuruari soilik erreparaturik. Akatsak banan-banan aztertu beharko lirateke ikasleak testua ulertu duela eta noraino ulertu duen ondorioztatzeko. Ez da gauza bera huts egitea galdera literalagoetan edo galdera globaletan edo

inferentzia bat egin beharreko galderetan. Berebizikoa da ikasleari laguntza ematea irakurtzen duen hori uler dezan eta hori garbi dute Elorrin.

Azalpen testuez gain, testu narratiboak ere lantzen dituzte bai liburutegiko ipuinak hartuz eta etxean irakurriz, bai Txanelak duen irakurgaien liburukian agertzen diren ipuinak, olerkiak etab. irakurriz eta baita liburuez aparteko beste testu batzuk aurkeztuz ere. Gehienbat abenturazko, beldurrezko eta umorezko testuak eta ipuinak izaten dira. Testu narratiboen multzoan, antzerkiak eta elkarrizketak sartzen dituzte batzuetan. Azken finean, ikasleak motibatu nahi baditugu, genero horietako testuak izan behar dira. Landu duten testu narratibo bat adibide bezala *Euskaldun bat Marten* da. Hemen testu horren zatitxo bat:



## 7. Irudia: Testu narratiboa

Testu honen ulermena baloratzeko erabiltzen dituzten ariketak eta galdera mota ezberdinak ikusteko jo 5. *eranskinera*.

Eskolan, liburutegiko liburuak ere irakurtzen dituzte. Gelan, irakurzaletasuna sustatzeko eta gozamenaz irakurtzeko helburua bultzatzeko, astean behin ordu batez

haur literatura irakurketa lantzen da. Gainera, legediak berak aipatzen du astean ordu bat literaturarako izan behar duela eta ondorioz, ikastetxean ordu hori planifikatuta dago. Honez gain, ikasleek liburutegitik gustuko liburu bat maileguan hartzen dutenean, jarraian gelara joaten dira norbanako irakurketa isilean aritzeko 15-20 minutuz, beti ere motibazioaren arabera (isiltasun horrek ez du balio aztoratuta badaude, ez da behartutakoa izan behar). Une honen helburua, irakurtzen hasi diren liburua etxean irakurtzen jarraitzeko grina piztea da.

Liburua irakurri ondoren, ulermena baloratzeko teknika ezberdinak erabiltzen dituzte, hala nola, laburpena egitea, ipuinaren inguruko komiki bat egitea, ipuinari buruzko fitxa betetzea, frogatxo, etab.

Testu informatiboen kasuan, egunkarietatik hartutako testuak erabiltzen dituzte maiz. Honez gain, triptikoak, supermerkatu bateko eskaintzaren foiletoak, zein farmazia dauden irekita asteburuan adierazten duten informazioa, adibidez. Errealitatearekin oso lotuta dauden baliabideak erabiltzen dituzte (irudiak, eguneroko informazioak...).

Hona hemen landu duten testu informatibo bat:

**Hemen duzu Zientziaren kutxaGuneaz jakin nahi duzun guztia.**

**MUSEOAREN JARDUERAK**

- Erakustaldiak eta esperimenduak susezorian.
- Bistak Astronomia Behatokia (erreserba egin behar da aldez aurretik).
- Diastiroak eta buingak.

**MUSEOKO ORDUTEGIA**

- **Asteartetik ostiralera:** 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara).
- **Larunbat, igande eta jaiakinetan:** 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara).
- **Ibota egongo da asteleheneratan (uztailako eta abuztuako asteleheneratan izan ezik), baita beste egun hauetan ere:** Urtzimaren 1ean eta 20an eta abenduaren 25ean.

**PLANETARIUMAREN ORDUTEGIA**

- **Asteartetik ostiralera:** 18:00etan
- **Larunbat, igande eta jaiakinetan:** 11:30ean - 12:15ean - 11:30ean - 16:00etan - 17:00etan - 18:00etan (udan 19:00etan ere bai).



2006ko PREZTIOAK	ORONORRA	MURRIZTUA
MUSEOAK	7 euro	5 euro
PLANETARIUM	2,5 euro	2 euro

**TARIFA BEREZIAK**

- Tarifa murriztua 18 urteko behararokoezkat, 65 urteko gorakoentzat, familia ugarientzat eta 15 pertsona baino gehiagoko talde arretxerentzat (erreserba egin behar da aldez aurretik).
- Gainera, tarifa bereziak dituzte Urreko Txartela eta Gaztekuha Txartela datenek.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [www.miramón.org](http://www.miramón.org) web orria edo bidali mezu bat [kutxaespacio@kutxa.es](mailto:kutxaespacio@kutxa.es) helbidera.

**TELEFONOAK** 943 012 478 Informazioa  
943 011 917 Erreserbak  
Militariak gaztelania, 43-45 DON OSTIA

## 8. Irudia. Testu informatiboa: triptikoa

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

Triptiko honen ulermena baloratzeko ikasleek zenbait galderari erantzun behar zizkieten (ikus *6.eranskina*).

Elorrin oso kontziente dira euskara modu funtzional batean irakatsi behar dela. Hizkuntza bat dinamikoa izaten den eran, honen irakaskuntza ere horrelakoa izan behar duela eta ondorioz, eskolatik kanpo, errealitatean, aurkitzen ditugun formatu ezberdinak aurkeztu behar dizkiegula ikasleei. Hizkuntza bat ez da hizkuntza hila balitz bezala irakatsi behar, funtzionaltasuna bilatu behar da beti eta modu dinamikoan irakatsi. Modu honetan, euskararen irakaskuntza errealitatera egokitu behar da.

### **3.2.2. Idatzizko testuen ekoizpena (idazketa)**

Testu ekoizpenari dagokionez, tutorea ohartzen da Idazketa jarduera kognitibo konplexua dela eta komunikatzea duela helburu eta ondorioz, berau gauzatu aurretik planifikatu eta etengabe gainbegiratu behar dutela ikasleek. Horretaz gainera, testuen ekoizpenaren eta beste hizkuntza gaitasun batzuen artean lotura estua dagoela badaki, esate baterako, ahozko hizkuntzaren eta irakurketaren artean. Beraz, idazketa ebaluatzea zaila gertatzen da.

Testu bat ekoizterakoan kontuan hartzen dira egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Egokitasunari dagokionez, kontuan hartzen da hartzailea nor izango den eta erregistro egokiaren erabilera. Koherentziari dagokionez, testuak zentzua izan behar du osotasun gisa harturik. Kontuan hartzen dira egitura, antolaketa eta gaiaren progresioa. Kohesioa, testuko osagaien arteko erlazioak dira eta testuak ongi artikulaturik egon behar du; puntuazio zeinuak, markatzaileak, juntagailuak eta aditzak egoki erabiltzen dituen ikusiko du tutoreak berau baloratzekoan. Azkenik, zuzenketari dagokionez, hizkuntza arauekin lotzen da. Garrantzia izango dute aurkezpenak, egoki irakurtzen den, ortografia eta sintaxiak, deklinabidea eta aditz formak zuzen dauden.

Testu mota bat nola ekoiztu edo nola idatzi behar den azaltzen die irakasleak lehenengo. Estrategia ezberdinak ikasten dituzte eta kontuan hartu behar dituzten aspektuak zein diren ezagutzen dituzte. Adibidez, *7.eranskinean* 6. mailarako egindako azalpen testu bat egiteko jarraitu behar dituzten estrategiak eta pausoak agertzen diren dokumentua da. Bertan, idatzi aurretik, bitartean eta ondoren jarraitu beharreko

estrategiak zehazten dira eta baita azalpen testu baten egitura nolakoa izan behar duen eta erabili behar den hizkuntzaren ezaugarriak zeintzuk diren. Honez gain, azalpen testu baten adibidea ere txertatuta dago.

8. *eranskinean* berriz, lan monografiko bat nola egiten den azaltzeko irakasleak erabiltzen duen dokumentua dago. Honez gain, lan monografikoaren adibide bat txertaturik dago. 6. mailako ikasle baten azalpen testu bat ikusteko berriz, jo 9.*Eranskinera*.

Horiez gain, azalpen testuen lan eredu hauetako batzuk proposa ditzake irakasleak:

- Bi animalari edo bi landareri buruzko azalpen testu bat prestatzea, aurretik emandako fitxetako datuetatik abiatu eta “konparazioa” erabiliz ideiak lotzeko prozedura modura.
- Pertsonaia ospetsu bati buruzko azalpen testu bat prestatzea, “hurrenkera kronologikoa” erabiliz ideiak lotzeko prozedura modura.
- Herrialde edo eskualde bati buruzko artikulua bat idaztea, datuen fitxa batetik abiatu.
- Uraren zikloaren edo landareen nutrizioaren moduko prozesu jakin bati buruzko azalpen testu bat prestatzea.
- Txanelan landutako gai bati buruzko azalpen testu bat prestatzea.
- Definizioen bat edo azalpenen bat idaztea.

Ekoizpen narratiboei dagokienez, beldurrezko, umorezko eta abenturazko ipuinak idaztea eskatzen die tutoreak gehienetan. Modu honetan, motibatuago sentitzen dira eta idazteko gogoia pizten zaie. Hona hemen ikasleek idatzitako testu narratibo baten adibidea:

#### *Gaztelu sorgindua*

“Mendillorriin Halloween zen. 6.mailako neska-mutilak Mendillorriko gaztelura joan ziren. Bat batean gazteluko atea bakarrik ireki zen eta 7 zombi atera ziren bertatik. Neska-mutilak korrika hasi ziren eta berehala poliziei deitu zieten. Poliziak agertu zirenean zombiei tiroka hasi ziren eta zombi guztiak hil ziren. Gero mamu batzuk agertu ziren eta mamu guztiak hil zituzten bat izan ezik, hau eskapatu baitzen. Ordu bat pasata eskapatutako mamua Iruñeko hilerrira joan

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan



zen eta bertan pertsona bat lurperatzen ari zirela ikusi zuen. Hiletan bildutako jendea joan zenean mamuak bizitza eman zion hildakoari. Pertsona hori zonbi errege bihurtu zen eta Mendillorriko gaztelura abiatu ziren berriz ere. Poliziak hor zeuden oraindik eta errege zonbiari tirokatzen hasi ziren. Polizia bat hil zen, baina beste bi polizia geratzen ziren. Gero bi foralak, zonbi erregea eta mamuak hil ziren eta umeak etxera pozik bueltatu ziren”.

Narraziozko testuen barruan, antzerkia ere lantzen dute. Modu honetan, antzerkiko protagonisten diskurtsoak nola idatzi behar diren azaltzen die tutoreak, hau da, esan behar dutenaren aurretik marratxoa jarri behar dela ikasten dute, etab. Antzerki generoaren ezaugarriak ikasten dituzte. Batzuetan, guztien artean antzerki testu bat idazten dute eta ahozkoasuna lantzearen, idatzitako testua antzeztu egiten dute. Ikasleek idatzitako antzerki baten adibidea ikusteko, jo *10. eranskinera*.

Batzuetan, irakasleak narrazio testu baten hasiera ematen die eta beraiek jarraipena ematea eskatzen die. Ondoren, irakasleak testu horiek ebaluatzen ditu kontuan hartuz irizpide gisa koherentzia, kohesioa, ideien sekuentzia, akats ortografikoak, istorioaren garapena, etab. Batzuetan, beraiek idatzitako testua pantaila digitalean jartzen du irakasleak guztien artean testua zuzentzeko, aipatutako irizpideei erreferentzia eginez. Honela, ikaskuntza askoz eraginkorragoa gertatzen da.

Hona hemen irakasleak planteatutako ariketa bat ipuinari jarraipena eman diezaioten:

*Sormena. Bukatu ezazu istoriotxoa: ongi antolatu esaldiak eta paragrafoak eta kontuz ortografiako akatsekin!*

Ilunabarra zen, eta ia ez zen ezer ikusten laino handia zegoelako. Banentorren lanetik etxera eta euria egiten zuen. Bat batean, esku bat sumatu nuen nire bizkar gainean. Buelta eman nuen eta

.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....

.....

.....

.....

.....

.....

Narrazio testuen barruan, txistek ere lantzen dituzte. Hona hemen irakasleak ezarritako ariketaren adibide bat:

*Bukatu ezazu txiste hau:*

Behin batean Jaimitok...

.....

.....

Elkarrizketak idazteko parada ere izaten dute testu tipo honen barruan eta elkarrizketaren ezaugarriak lantzen dituzte. Ikasleek gauzatutako elkarrizketa baten adibidea ikus daiteke *11.eranskinean*.

Aipatu behar da, Elorri ikastetxeko aldizkaria dutela. Bertan, ikasleen ekoizpenak argitaratzen dituzte, hala nola, azalpen testuak, elkarrizketak, ipuinak, komikiak, olerkiak, etab. Honez gain, beraiek maketatzen ikasi dute, irakasleak aldizkaria maketatzeko balio duen programa informatikoa erabiltzen irakatsi dielako. Honela, ikasleak oso motibatuta egoten dira testu ezberdinak idazten eta asko saiatzen dira modu egokian idazten ikasitako estrategiak aplikatuz.

Aldizkariak gain, irratia ere badute eta ahozko testuen lanketaz gain, mikrofonoaren aurrean esan beharrekoa alde aurretik pentsatu, erabaki, antolatu eta idatzi egin behar izaten dute talde lanean. Bertan, ardurak zehazten dira eta guztien artean elkarrizketak, txistek, olerkiak, asmakizunak, ipuinak, etab. idazten dituzte. Oso aberasgarria izaten da euren ikaskuntzari begira eta motibazio handiko ekintza.

Narrazio testuen barnean, ondoko hauek izan daitezke lan ereduak:

Narraziozko, azalpenzko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan

- Egiazko gertaera bat edo fantasiako gertaera bat lehen edo hirugarren pertsonan kontatzea: bidaia bat, festa bat, ospakizun bat, txango bat, abentura bat, lehiaketa bat, berri bat...
- Kontrajarritako sentimenduak sortu dituen zerbait kontatzea: hasieran tristura, eta gero, poztasuna; haserrea batzuei eta poza besteei; harridura batzuei eta normaltasuna besteei...
- Ipuin ezagun bat laburtzea.
- Film bat edo liburu bat laburtzea.
- Ipuin bat asmatzea, aurretik emandako ideia batetik abiatuz: zirkotik ihesi egin nahi duen lehoikume bat, lurlean bizi nahi duen arrain bat...
- Ipuin bat idaztea zenbait ideia-giltzarritatik abiatuz.
- Amets bat kontatzea.
- Kondaira bat idaztea.
- Fantasiako pertsonaia bati buruzko istorio labur bat idaztea.
- Pertsonaia ospetsu baten biografia idaztea.
- Narrazio testu bat idaztea zenbait irudi edo biñetaren laguntzaz.
- Egunkari bateko orrialde bat idaztea.
- Posta elektronikoko mezu bat idaztea.

Oro har, esan, Elorri ikastetxean, literatura jasotzeaz gain, literatur sormenari ere garrantzi handia ematen zaiola. Ez dugu ahaztu behar curriculumak berak literatur ekoizpenari bere lekua ematen diola.

Ekoizpenetara iristeak denbora eta lan asko eskatzen du, hau da, genero desberdinak ezagutarazi behar dira lehenengo, pausoz pauso landu, lehenengo zirriborroa egin, hauek zuzendu, sintaxia eta ortografia kontuan hartu... eta azkenik, ekoizpena. Egiten den prozesua oso formala da eta ikasleei ere asko kostatzen zaie.

Sortzeak balio intrintseko handia dauka baina bestalde, ikasleak preso daude gramatika, sintaxia, ortografia etab. kontuan hartu behar direlako. Beraz, ez dute behar bezala disfrutatzen, bide luzeegia baita beraienezako. Ez dauka ikasleentzako estimulu-erantzun azkarrik eta ondorioz, estrategia ezberdinak erabiliko dira berak konpentsatzeko, egindako ekoizpenekin liburuxka bat egitea, adibidez. Irakaslearen papera beraz, motibazio hori mantentzea izango da (gelan giro goxoa jarri, gai

motibagarriak eman, etab.). Ardatza ondokoa dela esan genezake: nola mantendu ilusioa lan horretan?. Estimulu azkar baten beharra dute baina askotan, berandu iritsiko denez, ilusioa nola mantendu jakitea edo asmatzea konplexua da.

Ikasleek, narraziozko eta azalpenezko testuez gain, testu informatiboak ere idazten dituzte testu mota hauen ezaugarriak ikasi ondoren. Ikasleek ekoiztutako testu informatiboen adibide bat aurki daiteke *12.eranskinean*.

Testu idatziaren ulermen eta ekoizpena baloratzeko erabiltzen duten ebaluaketa orri bat ikusteko jo *13.eranskinera*.

### **3.2.3. Ahozko testuen ulermena (entzumena)**

Tutoreak “betiko” testu sistematizatuetatik haratago joateko interesa agertzen du. Bere ustez, testuek ez dute beti paperean izan beharrik eta ez dira beti ipuinak eta azalpen testuak izan beharrik. Berak dioen bezala, hizkuntza bat era erreal batean irakatsi behar da eta era dinamiko batean. Ezin gara mugatu azalpen testu idatziak lantzerik. Tartean, ahozko testuak entzun eta ulermena landu behar da, hizkuntza bat entzun egiten delako eta euskalki ezberdinetan entzutea oso garrantzitsua da. Hori horrela dela ikustarazteko, irratsaioak, txisteak, bakarrizketak, antzerkiak, albistek etab. entzuten dituzte. Eskolako irratian irratsaioak ere egiten dituzte.

Testuak era ezberdinetan aurkezteko, formatu ezberdinak erabili behar dira, euskara hizkuntza dinamikoa da, errealitatean euskaraz irakurri eta entzun egiten dugu. Formatu ezberdinetako testuak ikusten ditugu gure inguruan (aldizkari ezberdinetako azalpenezko testuak, olerkiak, abestien letrak, txisteak, irudi askotako testuak, grafikoak, manualak, errezetak, etab.) baina euskara entzun ere egiten dugu jendartearen, telebistan, irratian... Beraz, eskolako euskararen irakaskuntza, gizartearen isla izan behar du, errealak. Hizkuntza era bizian, dinamikoan irakatsi behar da.

Honez gain, Euskal Herrian euskalki ezberdinak ditugu eta aniztasun hori ere txertatu behar dugu eskolan. Euskalki ezberdinetako entzunaldiak jarri behar dizkiegu. Elorri aniztasun hori geletan txertatzen saiatzen dira.

Entzunaldi ezberdinak jartzen dizkie eta ondoren hauen ulermena baita ebaluatu ere. Entzunaldi hauek irratian emandako albisteak, abestiak, euskalki ezberdinetako jendeari egindako elkarrizketak eta abar izan daitezke.

Azalpen testuen entzumena, narraziozko testuak eta testu informatiboak entzuteko aukera izaten dute.

6. mailan ezarritako mintzamenaren ulermen ariketa baten adibidea “Karabana” irratsaioarena da. Entzunaldi honen transkribapena ikusteko jo *14.eranskinera*. Normalean, bi aldiz jartzen die entzungaia, eta ondoren ulermena neurtzeko galderak betetzen dituzte. Irratsaio horretan entzundakoaren inguruko irakasleak ezarritako ulermen galderak ikusteko, begiratu *15. eranskina*.

Irakasleak ezarritako entzunaldi baten inguruko azterketaren beste adibide bat ondokoa izan zen:

*Entzun ongi testua eta erantzun:*

(transkripzioa)

“Begiak zabaldu zituenean mamuak han jarraitzen zuen. Geldirik. Gelaren iluntasuna erabatekoa izan arren garbi ikus zezakeen. Bere aurrean zegoen, geldi. Gorputz gardena argi leun batez inguratuta zuen, fosforeszentzia baten modukoa. Ingurua betetzen zuen argi leuna.

Mamua, zutik zegoen, airean flotatuz bezala, begira. Berari begira.

Ohe barrutik, manten babesean, gorputzeko izua gainditu eta begirada itzultzera ausartu zen. Bera zen, ez zuen inolako zalantzarik. Hil aurreko aurpegi bera zuen baina, begiak, zulo ilunak baino ez ziren lehen begi argiak zituen tokia.

“Zer nahi duzu?”, nahi zion galdetu, baina ez zen ausartzen, erantzuna ezagutzen zuelako. Eta ez zuen gustuko.

Zer egin zezakeen orduan? Ihes? Ezkutatu? Begiak berriz ixtea erabaki zuen. Bere ikara manten azpian gordetzea, ezjakinarena egitea, mamua bere kasa desagertuko zenaren esperantzan.

Oheko arrokekin kokotseraino estalita begiak itxi zituen. Berehala sumatu zuen hoztasun bat bere inguruan, ohea setiatzen zuen lanbro baten modukoa. Umeltasun batek biltzen zuen, gordetzen zuen, itotzen zuen.

Begiak are indar gehiagoz itxi zituen, desesperatuta. “Eta etsipen ilunean loak hartu zuen. Ez zen berriz esnatu.”

- Nor da zure ustez kontakizun honetan agertzen den mamua? Zergatik?
- *Eta etsipen ilunean loak hartu zuen. Ez zen berriz esnatu. Zer esan nahi du?*
- Ze testu mota ote da entzundakoa? (borobildu) Beldurrezkoa, abenturazkoa edo maitasunezkoa
- Nola dago kontatuta? (borobildu) zuzenean -zeharka -bertsotan

Entzunaldietarako, audioak eta bideoak ere erabiltzen dituzte IKT-ak aprobetxatuz. Bideo ezberdinak ikusi eta entzuten dituzte youtube-tik jaitsita, besteak beste. Laburmetriak ere ikusi izan dituzte eta aukera anitz eskaintzen dituen web orrialde batetik entzumen material asko topatzen dute irakasleek, <http://centros.educacion.navarra.es/creibzw/baliabideak/HGEP/entzun.htm> web gunetik, hain zuzen.

Bestelako hizkuntza gaitasunak neurtzeko probak eta audioaren ulermen probak erabiltzen ditu irakasleak EIBZ-ren web gunetik eskuratutakoak.

Ikasleek ahozko testuak ulertu behar dituzte informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak, elkarrizketak edo eztabaidak). Honez gain, irratitik, telebistatik edo Internetetik heldu diren ahozko testuak ulertu behar dituzte (albistek, elkarrizketak, eztabaidak, egungo gaiei buruzko iruzkinak...). Honez gain, baita ikus-entzunezko materialak erabiltzea komenigarria da.

### **3.2.4. Ahozko testuen ekoizpena (mintzamina)**

Elorri ikastetxean, ahozko gaitasuna entzunaldien bidez eta mintzamenaren bidez lantzen dute. Azken honetan trebatzeko, hainbat jardura ezberdin burutzen dituzte 6. mailan. Mintzamenaren dimentsioaren barruan, *ahozko elkarrekintzari* pisu handia Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6. mailan

ematen diote, hau da, testuinguratua dena eta errealitatean erabiltzea litzatekeena. Espontaneoki sortzen diren diskurtsoak lirateke, bereziki.

Ahokotasuna, mintzamenaren ulermena bezala, irakaskuntza arlo guztietan lantzen da zeharka, hau da, irakaslearen azalpenak entzun egiten dituzte eta ulertu egin behar dute eta beraiek ere parte hartzen dute hitz eginez. Askotan, jarduerak eta proiektuak banaka egiten dituzte eta beste batzuetan taldeka. Jarduera amaitu ondoren, maiz jendaurrera ateratzen dira lana aurkeztera. Modu honetan, ahokotasuna lantzen dute eta irakasleak ebaluatu egiten du ikasleen gaitasun komunikatiboa. Matematikan, problemen eta ariketen ahozko azalpena egiten dute, Ingurunean Txanelak ere audioak ditu eta ondorioz, ahokotasuna era batean lantzen da modu batean edo bestean.

Euskara arloan zehazki, ahokotasuna propio lantzen da, hots, ez da zeharka lantzen beste arloetan bezala.

Elorrin, euskara arloaz gain, H.A. irakasgaiaren ere, ahokotasunari izugarritzko garrantzia ematen diote eta horretara zuzendutako jarduerak egiten dituzte. Adibidez, ikastetxeko areto nagusira joaten dira eta eskenatokiaren gainean banaka txistek euskaraz memorizatzen dituzte eta ondoren guztien aurrean bota. Helburua da txistea ulertzea eta gero bakoitzak bere egitea, hau da, bere hitzetan euskaraz kontatzea.

Beste batzuetan, aho korapiloak ere lantzen dituzte aho trebetasunerako. Antzerkiak ere prestatzen dituzte taldean edota gela osoarekin, amaieran eskola mailan emanaldi bat eskaintzeko. Modu honetan, pertsonaia ezberdinak interpretatzen dituzte.

Euskara arloan, ipuinak idatzi ondoren, denon aurrean ipuin horiek kontatzen dituzte. Eskolako irratian ere aldeztu aurretik prestatutako programatxoak plazaratzen dituzte. Bertan berriak, ipuinak, asmakizunak, elkarrizketak, gaur egungo gaiak, elkarrizketak txistek, etab. kontatzen dituzte.

Batzuetan, taldeka egindako proiektu garrantzitsu bat bukatzen dutenean, 6. mailako beste gelara joaten dira ahoz aurkeztera. Honez gain, eskolako txikiengana ere joaten dira ipuinak kontatzera.

Elorrin badakite irakasleen eskola magistralak irakaslearen ahokotasunean oinarritzen direla gehienbat, ikasleak rol pasiboa hartuz. Hori horrela, ikasleen parte hartzea oso

garrantzitsua dela pentsatzen dute, hau da, ikasleen gaitasun komunikatiboa garatu nahi bada, ikasleen ahozketasunari leku gehiago eman behar zaiola. Taldekako diskurtsoak indartu behar dira hiztun trebeak izan daitezten lortu nahi badugu. Ahozko elkarrekintza bultzatu behar da.

Irakasleak egoera komunikatibo ezberdinetarako estrategiak irakasten dizkie. Hizkera formala eta egituratua alde batetik eta informala edota lagunartekoa, bestetik. Aipatzekoa da ahozketasuna proiektuan txertatuta dutela Elorri eta irakasleek badakitela denak direla hizkuntzaren irakasle, ez soilik euskarako irakaslea.

Ahozketasunerako estrategiak irakasten dizkie, hala nola, diskurtso egituratu bat egiten, antolatzaileak erabiltzen, ideia nagusiak eta osagarriak bereizten, etab.

Irakasleak ikasleen mintzamina ebaluatu egiten du zenbateraino menderatzen duen ikusiz. Alde batetik, alderdi linguistikoari erreparatzen dio, hau da, sintaxia, lexikoa, intonazioa, etab. Alderdi diskurtsiboa ere ebaluatzen du, bestetik. Azken honetan, hiztegi egokia, ulergarritasuna, tonu egokia, abiadura, gorputz keinuak, etab.

Diskurtso egoki bat nolakoa izan behar den azaltzen die ikasleei. Bertan jarraitu beharreko eskema ondokoa izango litzateke: hasiera, mamia eta bukaera atalak ongi bereiztea; ideiak ongi antolatzea eta mailakatzea (koherentzia); ideien arteko loturak ongi egitea (kohesioa); eta esango dena laburbiltzea.

Soziolinguistika aspektuak ere kontuan hartzen dira, hau da, entzuleen eta egoeraren ezaugarrietara egokitzeko entzuleen ezagutza mailara egokitzea, entzuleekiko distantzia, erregistro egokia eta jendetasuna.

Bestelako baliabideen berri ere ematen die: keinuak, begiradak, geldialdiak, isiluneak, ahots aldaketak (arindu, moteldu, etab.), entzuleak harrapatu eta hitzaldiak txertatu, baliabide erretorikoak argitze-erakartze aldera (analogiak eta adibideak).

Ahozketasun jardueren artean, arestian aipatutakoez gain, debateak, hizkuntza jokoak, sukalde errezetak ahoz aipatu, grafikoen ahozko azalpena, argazki baten ahozko deskribapena, elkarrizketak, monografiak, ikasitako gaia azaltzea, etab. txerta daitezke eta horrela egiten dute. EIBZ-ko materiala ere oso erabilgarria da eta aprobetxatzen dute.

Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan



Lehen Hezkuntzako Nafarroako curriculumean, ondoko helburu orokorrak zehazten dira entzutea eta ulertzea eduki multzoari dagokionez:

- Ahozko testuak ulertzea ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak, elkarrizketak edo eztabaidak).
- Irratitik, telebistatik edo Internetetik heldu diren ahozko testuak ulertzea eta baloratzea, garrantzi berezia emanez albisteari, elkarrizketari, haurrentzako erreportajeei, eztabaidei eta gaurkotasuneko gaien iruzkinei, ikasleak egitate eta gertaera garrantzitsuei buruzko informazio orokorra jaso dezan eta informazioa eta iritzia bereiz ditzan.
- Ikus-entzunezko dokumentuak erabiltzea gero eta autonomia gehiagorekin lortu, hautatu eta erlazionatzeko ikasteko garrantzitsuak diren informazioak (identifikatzea, sailkatzea, konparatzea).
- Komunikabideak baloratzea ikasteko tresna gisa eta beste pertsona batzuen informazioak eta esperientziak eskuratzeko tresna gisa.

Elorrin helburu horiek gelako programazioan txertatuta dituzte.

Irakasleak ahozkotatasuna ebaluatzen du eta hizkuntzan eta ahozkotasunean zailtasunak dituzten ikasleei jarraipen zehatzagoa egiten die. Tarteka, ikasle hauei ahozko ekoizpenak grabatzen dizkie euren ahozko gaitasunaren eboluzioa baloratu ahal izateko.

### **3.3. Oinarrizko gaitasunen garapena**

Hizkuntza arloak zuzenean egiten dizkie ekarpenak gainerako arlo guztiei, *hizkuntza-komunikazioaren gaitasuna* osatzen duen alderdi guztien garapenari.

Azpimarratzekoa da, halaber, komunikatzeko gaitasuna osatzen duten estrategiak hizkuntza jakin baten bidez eskuratzen direla, baina ez dutela soilik balio hizkuntza hori erabiltzen jakiteko, oro har hizkuntzaren erabilerari buruzkoak baitira. Ama hizkuntzan ikasitako komunikazio estrategiek, beste hizkuntza bat ikastean baliagarri zaizkigu, alde aurretik eskuratutako estrategia horiek aplikatu baititzakegu.

Jakintzak eskuratzeak eta ezagutzak hizkuntzaren bidez eraikitzeak zuzeneko lotura du *ikasten ikastea eta norberaren autonomia eta ekimena* oinarrizko gaitasunekin. Hizkuntza, komunikatzeko tresna bat izateaz gainera, mundua irudikatzeko bide bat da, eta gainera, aukera ematen du arazoak analizatzeko, planak lantzeko, pentsamendua antolatzeko, afektuak eta sentimenduak komunikatzeko eta emozioak erregulatzeko.

*Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala* gaitasunerako ere, arlo hau lagungarri suertatzen da, informazioa eta komunikazioa bilatzeko, hautatzeko eta tratatzeko ezagutzak eta trebetasunak ematen baititu; bereziki lagungarria da informazioa, haren egitura eta testu-antolamendua ulertzeko eta hura ahozko eta idatzizko produkzioan erabiltzeko. Testuak egitean euskarri elektronikoak erabiltzen jakin behar dugu eta horretarako planifikatu, testua idatzi, berrikusi... egin behar dugu. Gainera, komunikabide digital berriek, etengabe sortzen doazenek, idazketaren erabilera sozial eta lankidetzazkoa suposatzen dute, eta horrek bidea ematen du idatzizko hizkuntzaren ikaskuntza egiazko komunikazio truke baten esparruan kokatzeko.

*Hizkuntzarekin gaitasun soziala eta hiritar gaitasuna* garatzen da, ulerturik gaitasun hori bizikidetasunerako, errespeturako eta pertsonen arteko elkar ulertzerako gaitasunen eta trebetasunen multzoa dela; izan ere haiek eskuratzeko hizkuntza beharrezkoa da, komunikazioaren oinarri gisa. Hizkuntza bat ikastea, beste ezer baino lehen, besteekin komunikatzen ikastea da, haiek transmititzen dutena ulertzen jakitea, errealitate ezberdinekin harremana izaten jakitea eta norberaren adierazpena onartzen jakitea, gainerakoei irekitzeko funtsezko modu gisa.

Bestalde, hizkuntza propioa lehen mailako elementu kultural gisa aitortzeaz gain, arlo honetan obra literarioen irakurketak, ulertzeak eta baloratzeak lagundu egiten dute *gaitasun artistikoa eta kulturala* garatzen.

Elorri ikastetxean, aipatutako gaitasun hauek 3. puntu osoan zehar aipatutako jarduera ezberdinen bidez garatzen dituzte. Arlo bakoitza bost dimentsiotan banatzen dute: ahozko ulermena (entzumenaren bidez), idatziaren ulermena (irakurketaren bidez),

mintzamina, idazmina eta ahozko elkarrekintza (errealitatean hizkuntza hori erabiltzea, testuinguratua dena, elkarrizketak).

Aurten, zikloka, *Programazio Orokorra* egiten hasi dira arloka. Bertan, arlo bakoitzean dauden dimentsioak, garatu beharreko oinarrizko gaitasunekin lotzen saiatzen ari dira. Beraz, era sistematizatu eta planifikatuago batean zehazten saiatze aldeko apustua egin dute. Ondoren, hurrengo pausoa, gaitasun horiek garatzeko unitate didaktikoak sortzea litzateke, eurek egindako unitate didaktikoak. Modu honetan, metodologia ezberdinak, jarduera anitzak, aniztasunari erantzuteko neurri ezberdinak, baliabide pedagogiko eta teknologiko ezberdinen erabilera txertatu ahal izanen dituzte unitate didaktiko horietan. Euskara arloan lantzen ari diren programazioa ikusteko jo *16. eranskinera*.

Plan orokor honetan, euskara arloa bost dimentsiotan banatzen da. Dimentsio bakoitzean lortu beharreko helburuak zehazten dituzte eta aldi berean, helburu hori lortzeko ikasleak eskuratu behar dituen trebetasunak ezartzen dituzte. Ondoren, hauetako trebetasun bakoitza zein 8 oinarrizko gaitasunekin lotura duen azaltzen dute. Adibidez:

*Ahozkoaren ulermena* dimentsioaren barruan, helburu bat besteen artean "Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) zentzu orokorra identifikatzea" jarri dute. Honen barruan, ikasleak eskuratu behar dituen trebetasunak zehaztu dituzte:

- Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.
- Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du.
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.
- Testuko ideien arteko harremana antzematen du.
- Zikloaren berezko lexikoa ezagutzen du.

Azkenik, hauetako trebetasun bakoitza zein gaitasunekin lotura duen adierazten dute, hau da, horietako bakoitzak zein oinarrizko gaitasun garatzen duen aldi berean.

### 3.4. Irakurzaletasunaren sustapena

Elorrin, irakurmena sustatzeko jarduera ezberdinak antolatzen dituzte eta liburutegia bera modu egokian kudeatzeko, liburutegiko arduradunak daude. Indarrean dauden ikastetxetako liburutegia arautzen duten Errege Dekretu, Foru Dekretu eta Ebazpen ezberdinetan oinarritzen dira, hala nola:

- 1537/2003 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa, erregimen orokorreko eskola irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek izan behar dituzten baldintza gutxienekoak ezartzen dituena. Bertan, liburutegi bat nahitaez egon beharra ezartzen du, “ikastetxeko curriculum helburuak iristen lagungarri izateko, behar adinako liburu eta ekipamendu informatikoa izanen du haren kudeaketa ziurtatu eta ikasleengan irakurzaletasuna sustatzeko”. Liburutegiak behar duen azalera minimoa hezkuntza mailaren araberakoa da.
- 32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Liburutegien sistema arautzen duena. Bertan, eskola liburutegiak 19. artikuluko 2. puntuan aipatzen dira, zeinean eskolako liburutegia honela definitzen baita: “baliabide zentro oinarritzakoa, Hezkuntza eta Curriculum proiektuetan erabat integratua, eta informazio zerbitzu eragilea, ikasleen ikasketarako, irakaslanerako eta gizarte ingururako ezinbestekoa”.
- 583/2002 ebazpena, uztailaren 15ekoa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena.

Eskolako liburutegia baliabide zentro antolatua da, euskarri mota guztiak erabiltzen dituena, curriculumeko arlo guztien ikasketan lagundu eta ikasleak irakurzaletzeko. LOE-k hainbat aipamen egiten ditu irakurmenari eta eskola liburutegiari buruz. Irakurzaletasuna bultzatu nahi da eta eskolako liburutegiaren erabilera indartu. Horretarako, eskolako liburutegien erabilpenerako planak eta idazketa-irakurketa planak definitzen dira irakurketa-idazketa kompetentziak hobetzeko.

Eskolako liburutegia, curriculumeko arlo guztien helburuen artean ageri da, honela: Eskolako liburutegia, informazio eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa eskuratzeko eta ezagutzak beretu eta partekatzeko tresna gisa. Hizkuntzen

tratamendu integratuan ere, eskolako liburutegia etengabe ageri da Gaztelania eta literatura, Euskara eta literatura, atzerriko hizkuntza (ingeleza), atzerriko bigarren hizkuntza (frantsesa eta alemana) arloetako eduki bloke guztietan.

Elorriko liburutegi gelako antolaketa sinple bat egin ostean liburu katalogazioarekin hasi ziren eta gaur egun 1400 liburu inguru dituzte katalogatuta nahiz eta oraindik ere lan handia izan horretan. Katalogazioa ABIES programarenen bitartez egiten hasi ziren formazioa jaso ondoren eta horretan dabiltza.

Liburuak kolore ezberdinetako pegatinak dituzte beraien azalean eta hauek apalategi ezberdinen arabera ordenatuta daude. Horrela txoko ezberdinak bereiz daitezke liburutegian. Liburutegiko helburua, eskolako liburutegiaren erabilera sustatzea da eta ikasleen irakurketa zaletasuna bultzatu eta tresna didaktiko bihurtzea.

Ikastetxe honetako helburu garrantzitsuak dira ikasleak literaturaz goza dezaten eta sormen literarioa lantzea. Jakin badakite, irakurzaletasuna eskuratu dezaten lortzea ez dela batere lan erraza, baina erronka polita da. Beraz, jarduera asko egiten dituzte eta irakasle bakoitzak estrategia ezberdinak erabiltzen ditu. Estrategiez gain, irudimena ezinbestekoa dela diote irakasleek.

Beraz, gelan bertan irakurketa txokoak prestatzen dira eta baita gelako liburutegia ere. Noizbait azoka literarioak antolatzen dira. Hor ikasleek irakurritako liburuak elkartrukutzen dituzte beste klase-kideekin. Ildo honetan, saihestezina suertatzen da etxean irakurzaletasuna bultzatzea. Horretarako gurasoei gomendatzen zaizkie udarako irakurgaiak, liburuak, aldizkariak, ipuinak, komikiak eta abar.

Gelan, irakurzaletasuna sustatzeko eta gozamenaz irakurtzeko helburua bultzatzeko, astean behin ordu batez haur literatura irakurketa lantzen da. Gainera, legediak berak aipatzen du astean ordu bat literaturarako izan behar duela eta ondorioz, ikastetxean ordu hori planifikatuta dago. Nafarroako Gobernuak curriculumak dioen bezala, eskola honetan gutxienez ordu bat astero literaturaren inguruan aritzeko erabiltzen dute. Honela, gelan giro goxo bat sortzen da musika lasiaz lagundurik irakurketarako.

Honez gain, ikasleek liburutegitik gustuko liburu bat maileguan hartzen dutenean, jarraian gelara joaten dira norbanako irakurketa isilean aritzeko 15-20 minutuz, beti ere motibazioaren arabera (isiltasun horrek ez du balio aztoratuta badaude, ez da

behartutakoa izan behar). Une honen helburua, irakurtzen hasi diren liburuak etxean irakurtzen jarraitzeko grina piztea da.

Haurrengan literaturarekiko motibazioa pizteko, hainbat jarduera eta estrategia erabiltzen dira. Hala ere, motibazioa piztea zaila dela diote irakasleek. Oso motibatuta egoten dira baldin eta zerbaitetarako bada, hau da, irakurri irakurtzeagatik ez dute gustuko orokorrean. Aldiz, irakurri ondoren antzestu, mozorrotu, grabaketa bat egin, margotu...behar badute, orduan bai motibatzen direla (nolabait protagonistak bihurtzen direlako). Azken finean, estimulu bat badago motibatzea lortuko dugu, erantzun azkar bat behar baitute. Literaturaren hurbiltze prozesua, hasiera batean oso "merkantilista" da, esan bezala, ikasleek bat-bateko estimulua behar baitute. Hori, egungo telebistaren eta teknologiaren eragina dela azpimarratzen dute eskolan (erabateko estimulu erantzunean oinarritzen den gizartea, ikus-entzunezko kulturaren eragina...). Oso zaila da haurrak motibatuko dituen "tekla" non dagoen jakitea.

Azken finean, beraiek pasiboki irakurtze hori ez dute erabat borobilduta. 3.zikloan, irakurtzen ongi dakite, ulertzeko gaitasuna dute, hainbat literatur genero ezagutzen dituzte eta horregatik, helburua eurek pasiboki irakurtzeko zaletasuna bultzatzea da. Erabiltzen diren estrategiak horren inguruan daude enfokatuta baina irakurzaletasuna barneratu dezaten motibazio hori piztu eta mantentzea oso zaila da. Ondorioz, irakasleek irudimen handia behar dute estrategia ezberdinak asmatzeko (estimulu eta erantzun motibatzaileak sortzen). Estrategiekin oreka bilatzea zaila da, ez dago batere argi, irakurri ondoren bete behar dituzten fitxen eta bakarrik gustura irakurtzearen artean. Maiz irakurri ondoren fitxak bete behar dituzte (ipuinaren laburpena egin, irakurri ondoren, ipuinaren istorioaren inguruko komiki bat egin...).

Irakur zaletasuna sustatzeko jardueren artean, azpimarratzekoa *dairakurketa kluba*. Hamabostean behin ikasleek eskolako liburuak eramaten dituzte etxera. Handik bi astetara liburuak bueltatzen dituzte eta irakurritakoaz hitz egiten da klasean. Horretaz aparte, literaturen alderdi formalak lantzearen, liburuaren izenburua, idazlea, marrazkilaria eta argitaletxea ezagutu dezaten eskatzen die irakasleak. Ikasleen balorapenak ere kontuan hartzen dira, hau da, ea gustuko duten ala ez eta zergatiak

ere jasotzen dira saio horretan. Modu honetan, norberaren pentsaerak eta inplikazioa indartu nahi da.

*Ipuin kontalariaren ariketa* ere egiten dute, hau da, ikasle bakoitzak gustuko duen ipuin bat aukeratu behar du eta etxean irakurri ondoren, bere ikaskideen aurrean kontatzeko prestatu behar du. Honi loturik, *ipuin kontalari bat* kontratatzen du eta *idazleen bisitak* ere izaten dituzte.

Elkar-ek ere *ilustrazio lehiaketa* antolatzen du eta ikasleek oso motibatuta aritzen dira argitaratu gabeko liburu bat ilustratzen. Hauxez gain, *azoka literarioak* ere antolatzen dira eta bertan ikasleek irakurritako liburuak elkartrukatzen dituzte beste gelakideekin. Nafarroa mailan antolatzen den *Mikroipuin lehiaketa* ere egiten da zein Euskara Elkarteak bultzatzen duen.

Jarduera eta estrategia hauez gain, ikasleentzat oso motibagarriak dira *eskolako blog-a* eta Elorriko *aldizkaria*. Hauetan, beraien ekoizpen literarioak argitaratzen dituzte.

Eskolako ikasle gazteenekin ere, *maleta ibiltaria* antolatzen dute. Liburu sorta bat maleta barruan sartuta etxera eramateko aukera izaten dute ikasleek. *Euskararen eguna* ere ospatzen da eskolan. Egun hau ekintza ezberdinak eginez ospatzen da, liburuen irakurketak eta liburu trukaketa besteak beste.

Agerian denez, hainbat ekintza sustatzen dira Elorri liburutegiaren erabilera eta irakurzaletasuna bultzatzeko.

#### **4. EMAITZAK**

Behaketa egiten hasi aurretik, zer ikertu nahi nuen zehaztu nuen. Horretarako, gaiaren inguruko autore ezberdinen teoria, hausnarketa eta ekarpen ezberdinen inguruan dokumentu iturriak bilatu nituen eta nire behaketaren abiapuntu bilakatu ziren.

Hori egin ondoren, nire behaketaren helburuak definitu nituen eta baita nire hasierako galderak ere. Hau guztia esku artean izanik, Elorri ikastetxeko nire behaketari hasiera eman nion, 6. mailan oinarrituz bereziki.

Nik behaketa Elorri egitea erabaki nuen ahozko eta idatzizko testuen ulermena eta ekoizpena modu egoki batean egiten zutela iruditu zitzaidalako praktikan nengoen

bitartean. Egokia esaten dudanean, euskara modu eraginkor eta funtzional batean irakasteko metodologiari egiten diot erreferentzia. Beraz, proiektu hau baliatu dut metodologia horretan sakontzeko eta benetan egokia den ikusteko.

Aurreko puntuan metodologiaren berri ematen dut hainbat adibidez lagunduz, behaketa bera litzateke 3. puntua. Oraingo honetan, emaitzetaramugatuko naiz.

Elorrin testuen ulermenari garrantzi handia ematen diotela frogatu dut, bai idatzita aurkezten zaizkien testuen ulermenari eta baita ahozko testuen edo entzundakoaren ulermenari. Bestalde, idatzizko eta ahozko sormen edo ekoizpenak irakaskuntza era egokian lantzen dira. Bi aspektu hauen irakaskuntza eraginkorra dela ikusi dut, ikasleek ere eskolan eramaten duten metodologian oinarrituta, emaitzak hobekak direla ikusi dute irakasleek, pasatako azken barne frogetan ateratako emaitzak, besteak beste.

Eskolak hizkuntzaren irakaskuntza egoki bat bermatzeko, beharretan oinarritutako plan bat osatzen du urtero. Errealitatean oinarritzen den plan bat da, hau da, kanpo eta barne frogetan ateratako emaitzak aztertu ondoren, puntu ahulak non dauden identifikatu eta hobetze aldera ekintza ezberdinak zehazten dituzte. Beraz, irakaskuntza eraginkorra izateko abiapuntua ikasleen hizkuntza gaitasunaren errealitatetik abiatzen dira. Erabat sistematizatuta dago beraz, eta ez hainbeste irakasle bakoitzaren hizkuntzarekiko inplikazio eta sentimenduen menpe.

Gelako lanean zentratuz, erabiltzen dituzten liburuek testu mota ezberdinak eskaintzen dizkie eta nahiko bisualak dira: irudiak, grafikoak, ipuinak, olerkiak, azalpen testuak... Honetaz gain, testuen ekoizpenerako jarduera interesgarriak planteatzen dituzte: taldeka, binaka, talde osoan eta banaka egiteko. Arloak ere era globalizatuan ematen dira eta ondorioz, edukien ulermena eraginkorragoa da. Gainera, argi dute beste arloak ere hizkuntzan oinarritzen direla eta aspektu hori landu behar dela, hau da, ingurune arloan euskararen lanketa eta testu ezberdinen lanketa ezinbestekoa da. Matematikarloan ere, esaterako, irakurritakoaren ulermena oso garrantzitsua da.

Ulermenaren lanketarako, liburuez gain, testu ezberdinak aurkezten dizkiete irakasleek. Ez dira paperean inprimatutako azalpen testuetara mugatzen. Formatu ezberdinetako testuak irakurtzen dituzte eta eguneroko bizitzan aurkitzen ditugun erako testuak lantzen dituzte, hau da, foiletok, irudi askoko testu informatiboak, Narraziozko, azalpenezko eta informaziozko testuen ulermena eta ekoizpena 6.mailan



egunkariko berriak, iragarkiak, olerkiak, txisteak, elkarrizketak, mapak, grafikoak, ipuinak, etab. Modu honetan, hizkuntza modu funtzional eta erreal batean lantzen dute eta ikasleentzat askoz ere erakargarriago bilakatzen da eta motibatuago egoten dira eta ondorioz, hobeto ikasten dute.

Idatziaren ulermena bermatzeko ere, estrategiak irakasten dizkiete irakasleek eta behar adinako denbora eskaintzen diete teknika hauek bereganatu ditzaten. Irakurri aurretik, bitartean eta ondoren erabili behar diren teknikak ikasten dituzte. Honez gain, mapa kontzeptualak, eskemak, etab. egiten dituzte eta guztien artean zuzendu. Honela, ikasten ikasten dute eta erabat beharrezkoa dela deritze irakasleei, baita zailtasun gehiago dituzten ikasleei ere oso lagungarri zaiela azpimarratzen dute.

Idatziaren ulermena baloratzeko hainbat jarduera egiten dituzte, honela, ikasle bakoitzaren eboluzioa eta gaitasunen garapena ikus dezakete irakasleek.

Ahokotasunari ere garrantzi handia ematen diote irakasleek eta ahozko testuak ere modu ezberdinetan lantzen dituzte. Entzunaldi ezberdinak izaten dituzte ikasleek, hala nola, irratsaioak, telebistako informatiboak, hitzaldiak, euskalki ezberdinetako jendearen hizketak, txisteak, ipuinak, gai konkretu bati buruzko azalpenak, etab. Entzunaldien ulermena ere ebaluatzen zaie.

Ikasleek ahozko produkzio asko egiten dituzte. Oso argi dute irakasleek hizkuntza bat erabiliz ikasten dela eta ondorioz, jarduera interesgarri eta motibagarriak antolatzen dituzte. Aho korapiloak, txisteak, lanen jendaurreko azalpenak, antzerkiak, ipuinak, berriak, irratsaioak, etab. egiten dituzte. Ikasleek oso ongi pasatzen dute.

Elorrin, IKT-ek eskaintzen dizkigun aukerak erabiltzen dituzte gaitasun komunikatiboa garatzeko. Hau da, blog-ak, pizarra digitala, lupa, tablet-ak, irratia, baliabide material ezberdinak eta osagarriak eskuratzeko web gune ezberdinak, audio-grabaketak, bideoa, etab. Bide hauen erabileraren eraginez, ikasleek oso gustuko dituztenez, askoz motibatuago agertzen dira eta hizkuntza modu biziago eta interesgarriagoan ikasten dute.

Oro har, esan, ikasleen parte hartzea oso handia dela, ahozko jarduera asko egiten baitituzte. Gelako jarduna oso aktiboa da eta denborarik gehiena ez du irakaslearen

azalpenek betetzen, ikasleen parte hartzearekin euskararen erabilera indartzen ari direla argi dute.

Edukiak emateaz gain, ulermen estrategiak irakasten denbora dezente igarotzen dute, ulermena baita ikaskuntza guztien oinarri eta ikasleen eskola porrota oztopatzeko bide.

Elorrin, hizkuntzaren irakaskuntzaren inguruan asko hausnartzen dute eta beti agertzen dira metodologia eta planteamendu berrietara irekita

## CONCLUSIONES

Después de la observación sobre la tarea del educador para enseñar una lengua en todas sus formas, la postura de la escuela con respecto a la lengua tendría que partir del análisis de las necesidades del entorno y la competencia comunicativa de los alumnos/as para situarse en un objetivo y marcarse unas líneas progresivas de actuación como lo hacen en el C. P. Elorri. De esta forma, se podría determinar qué se debe enseñar y cuáles son las formas del lenguaje que necesitan aprender los alumnos/as.

En las escuelas en general, la meta de la enseñanza en el área de Lengua es el desarrollo de la competencia comunicativa, pero la formación y las prácticas todavía se centran en las representaciones tradicionales acerca de la enseñanza y el aprendizaje. Además, siguiendo el currículo actual, no sólo hay que enseñar gramática, ortografía, narración y poesía; también hay que enseñar otro tipo de conceptos como conectores, cohesión, campos semánticos, tipos de texto, proceso de lectura, comprensión textual, expresión oral... Pero todavía se sigue enseñando primordialmente el análisis sintáctico quedando en segundo plano los contenidos que impulsan el desarrollo de la competencia comunicativa. Por esto, es necesario replantear la enseñanza de la lengua y reorientarlo. Este trabajo refleja el C. P. de Elorri como ejemplo de buenas prácticas.

Las personas que saben escuchar de un modo receptivo y saben hablar bien han adquirido unas cualidades que son necesarias para establecer buenas relaciones personales, profesionales y sociales. En cambio, los alumnos con dificultades expresivas se encontrarán limitados en su desarrollo académico y en su futuro profesional. La competencia oral es, pues, un factor de integración social de los alumnos/as y un elemento facilitador del progreso profesional. Por ello, la enseñanza de la lengua oral ha de ocupar un lugar relevante dentro de la clase.

Con relación a la metodología, dentro del enfoque comunicativo, es importante contar con el tiempo para que los alumnos/as tengan el mayor número de contactos lingüísticos reales. Las actividades prácticas deberán ser variadas con el fin de alcanzar los objetivos propuestos. En cuanto al trabajo de la comprensión, se deben desarrollar



estrategias que promuevan la comprensión de significados explícitos, la comprensión por inferencia y la evaluación sustentada en juicios de valor.

Con relación a los recursos, se puede usar gran variedad de materiales para estimular la interacción en la clase y el uso de la lengua, tales como: juegos, periódicos, revistas, mapas, dibujos, gráficos, cuentos, etc. En especial, los recursos audiovisuales resultan un medio efectivo para potenciar la motivación y provocar una actitud positiva hacia el aprendizaje de la lengua como lo hacen en el C. P. Elorri.

En lo que se refiere al perfil de los maestros/as, tienen que tener unas características bien definidas, tales como: conocimiento de la lengua que va a enseñar, dominio de la metodología, habilidad para crear materiales, conocimientos sobre evaluación, dominio de nuevas tecnologías y que esté dispuesto al cambio y a la mejora.

Para una enseñanza eficaz y funcional de la lengua, la formación de los profesores/as tiene que ser adecuada, basada en este enfoque educativo. De este modo, los profesores/as adquirirán nociones metodológicas y didácticas para una enseñanza efectiva de la lengua. Aparte de esto, es necesario que el Equipo Directivo de la escuela apoye y promueva la enseñanza efectiva de la lengua mediante planes concretos basados en la reflexión de la situación y las necesidades de los alumnos/as.



## ERREFERENTZIAK

Bernárdez, E. (1995). *Teoría y epistemología del texto*. Madrid: Cátedra.

Bilbatua, M. (2000). Hezkuntza eleaniztasunerako bide berriak. Euskara irakasteko metodologiaren bilakaera. *Ikastaria. Cuadernos de Educación*, 161-173,18 (11).

[Erabilgarri (16/04/2013): <http://www.eusko-ikaskuntza.org/>]

CassanyComas, D.; Luna San Juan, M. & Sanz Pinyol, G. (1994). *EnseñarLengua*. Bartzelona: Graó.

De Miguel, J.L.; Etxebarria, A.; Jaussi, M.L.; Mendia, R. & Ruiz, C. (2006). *Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapena esku hartzeko eredu inklusiboaren barruan*.

[Eskuragarri (30/04/2013): <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>]

Larsen, R. & Buss, D. (2008). *Nortasunaren psikologia. Giza izaerari buruzko jakintza-eremuak*. [Eskuragarri (03/05/2013): <http://www.deusto.es>]

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamendua (2007). Curriculum. Lehen Hezkuntza (2. liburukia). Hizkuntzen tratamendu integratua: Gaztelania eta Literatura (L1), Euskara eta Literatura. D eredua (L1), Euskara. A eredua (L2), Ingelesa (L2). Iruñea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fonda.

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua. (2008). *Lehen Hezkuntzako ikasleen Oinarrizko Gaitasunak Hobetzeko Plana*. Iruñea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fonda.

Solé, I. (1992). *Estrategias de lectura*. Bartzelona: Graó.

## 1. ERANSKINA

### Oinarrizko Gaitasunak Hobetzeko Planeko helburuak, xedeak eta ekintzak

HELBURUA	XEDEAK	EKINTZAK
Idazmena hobetzea curriculumeko hizkuntza guztietan	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen idatzizko produkzioaren plangintza hobetzea, testu motak kontuan hartuz: deskribatzaileak, narraziozkoak eta azalpenzkoak.</li> <li>- Narrazio eta azalpenzko testuen egitura hobetzea.</li> <li>- Itxura eta ortografia hobetzea</li> <li>- Perpausen sintaxia eta testuaren barne kohesioa hobetzea, ziklo bakoitza kontuan hartuta.</li> <li>- Arlo bakoitzeko hiztegi aberats, askotariko eta berariazkoaren erabilera hobetzea.</li> <li>- Testuen berrikuspina hobetzea.</li> <li>- Ikasleek idatzitako testuen produkzioa gehitzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Landu beharreko mailak argiro definitzea eta ziklo bakoitzean testuen produkzioari eta ahozko adierazpenari buruzko eskaera hori egitea</li> <li>-Ziklo bakoitzeko testuen produkzioa eta ahozko adierazpena lantzeko lerro metodologiko komunak finkatzea.</li> <li>-Mintzamenaren eta idazmenaren zuzentasuna homogeneizatzea.</li> <li>-Ziklo bakoitzean idatzizko testuen produkzioari eta mintzamenari buruz ados jartzea.</li> <li>-Ziklo bakoitzean idatzizko testuen produkzioari eta mintzamenari buruzko ebaluazioaren gainean ados jartzea.</li> <li>-Ikasle bakoitzaren jarraipen banan-banakoa eta dokumentatua egitea.</li> <li>-Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.</li> <li>-Iritzien azalpena eta elkarriketak eta eztabaidak sustatzeko ados jartzea.</li> </ul>
Mintzamina hobetzea Curriculumeko hizkuntza guztietan	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen ahozko produkzioarako egoerak gehitzea.</li> <li>-Argi eta ozenki mintzatzea, hitzak eta letrak ongi ebakiz.</li> <li>- Intonazioa hobetzea.</li> <li>-Erritmoa hobetzea.</li> <li>-Hitz betegarriak saihestea.</li> <li>-Arlo bakoitzeko hiztegi aberats, askotariko eta berariazkoaren erabilera hobetzea.</li> </ul>	
Curriculumeko arlo guztiak Irakasleek erabiltzen Ditutzen testuliburu edo bestelako materialen Irakurmena hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahots ozenez irakurtzea.</li> <li>- Arlo bakoitzeko oinarrizko hiztegia bereganatzea.</li> <li>-Testuaren ideia nagusia edo asmo orokorra identifikatzea.</li> <li>- Informazioa berreskuratzea (testuan barna informazio esplizitua kokatu eta ateratzeko).</li> <li>-Testuak ulertzea (esanahia atera eta inferentziak egitea informazio inplizitua bilatzeko).</li> <li>-Edukiaren gainean gogoeta egin eta ebaluatzea (testuaren edukia aldeztu aurretiko ezaguerekin, ideiekin eta esperientziekin erkatzeko).</li> <li>- Formari buruzko gogoeta egitea (testuaren hizkuntz ezaugarriak ebaluatzeko arlo hauetan: morfosintaxian, lexiko-semantikoan eta testualean)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeko Irakurketa Plana prestatzea.</li> <li>- Landu beharreko mailak argiro finkatzea eta ziklo bakoitzean irakurmenari buruzko eskaera egitea.</li> <li>- Irakurmena lantzeko lerro metodologiko komunak ezartzea.</li> <li>- Irakurmenaren balorazioa zikloka edo mailaka homogeneizatzea.</li> <li>- Zikloen barnean ados jartzea idatzizko testuen ulermenaren praktikari eta ebaluazioari buruz.</li> <li>- Gelarako ezarritako testuaren informazioak aberasteko egunkariak, aldizkariak eta bestelako liburuak erabiltzea.</li> <li>- Zikloen barnean ados jartzea zenbait jarduera burutzeko eskolako liburutegia erabiltzeari buruz.</li> <li>- Ikasleekin bisitaldiak antolatzea liburudendetara, liburutegietara eta liburu azoketara.</li> <li>- Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.</li> </ul>
Irakurtzeko ohitura eta Zaletasuna hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ikaslearen konfiantza eta segurtasuna indartzea irakurtzeko duen trebetasunari buruz.</li> <li>- Irakurtzeko ohitura sustatzea, adinari</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nahitaez irakurri beharreko liburuaren zerrenda prestatzea eta irakurketaren maiztasuna finkatzea: astero, hamabost egunetik behin edo hileroko.</li> </ul>



	<p>egokitutako liburuen artean ikasleak berak aukeratuta edo ikaskideek gomendatuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Ikasle bakoitzaren irakurketen kopurua progresiboki gehitzea.</li> <li>-Ikasleak liburu dendetara, liburutegietara eta liburu azoketara bisitaldiak egitera bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasle bakoitzak etxean irakurri beharrekoen jarraipen indibidualizatu eta dokumentatua egitea.</li> <li>- Ziklo bakoitzean ados jartzea zenbait jarduera burutzeko eskolako liburutegia erabiltzeari buruz.</li> <li>- Ikasleekin bisitaldiak antolatzea liburu dendetara, liburutegietara eta liburu-azoketara.</li> <li>-Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.</li> <li>-Ziklo bakoitzean ados jartzea bakarka nahiz taldeka irakurtzen eman beharreko denborari buruz</li> </ul>
<p>Curriculumeko arlo guztiak</p> <p>Irakasleek erabiltzen dituzten</p> <p>Testuliburu edo bestelako materialen irakurmena hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahots ozenez irakurtzea.</li> <li>- Arlo bakoitzeko oinarrizko hiztegia bereganatzea.</li> <li>-Testuaren ideia nagusia edo asmo orokorra identifikatzea.</li> <li>- Informazioa berreskuratzea (testuan barna informazio esplizitua kokatu eta ateratzeko).</li> <li>-Testuak ulertzea (esanahia atera eta inferentziak egitea informazio inplizitua bilatzeko).</li> <li>-Edukiaren gainean gogoeta egin eta ebaluatzea (testuaren edukia alde zuzenarekin, ideiekin eta esperientziekin erlazionatzea).</li> <li>- Formari buruzko gogoeta egitea (testuaren hizkuntz ezaugarriak ebaluatzeko arlo hauetan: morfosintaxian, lexiko-semantikoa eta testualean)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko Irakurketa Plana prestatzea.</li> <li>- Landu beharreko mailak argiro finkatzea eta ziklo bakoitzean irakurmenari buruzko eskaera egitea.</li> <li>- Irakurmena lantzeko lerro metodologiko komunak ezartzea.</li> <li>- Irakurmenaren balorazioa zikloka edo mailaka homogeneizatzea.</li> <li>- Zikloen barnean ados jartzea idatzizko testuen ulermenaren praktikari eta ebaluazioari buruz.</li> <li>- Gelarako ezarritako testuaren informazioak aberasteko egunkariak, aldizkariak eta bestelako liburuak erabiltzea.</li> <li>- Zikloen barnean ados jartzea zenbait jarduera burutzeko eskolako liburutegia erabiltzeari buruz.</li> <li>- Ikasleekin bisitaldiak antolatzea liburudendetara, liburutegietara eta liburu azoketara.</li> <li>- Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.</li> </ul>
<p>Hizkuntzaren erabilpena hobetzea, errealitatearen berdintasuneko ikuspegia</p> <p>Transmititzeko laguntza izan dadin</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko eta idatzizko komunikazioan hizkuntzaren erabilpen ez-sexista hobetzea, estereotipoak erazteko laguntza izan dadin.</li> <li>-Errealitatearen berdintasuneko ikuspegia transmititzeko adibideak, irudiak eta material didaktikoak erabiltzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Hizkuntzaren komunikazio eta erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntza ikastaroak sustatzea.</li> <li>-Berdintasuneko komunikazioaren gaineko eskuliburuak eta orientabideak hedatzea.</li> <li>- Erabiltzen diren testuak eta material didaktikoak aztertzea.</li> </ul>
<p>Trebetasun metakognitiboak eta hizkuntza trebetasunen transferentziak hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- plangintza</li> <li>- estrategien hautaketa eta horien aplikazioa</li> <li>- prozesuaren kontrola</li> <li>- berrikuspena eta ebaluazioa</li> <li>- egoera berrietara transferitzea</li> <li>- jarrera kritikoa</li> <li>- sormenezko ekimena</li> <li>- erabakiak hartzea arriskua ebaluatuz</li> <li>- berdinen arteko lankidetzeta, gelak, mailak, etab.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proposatutako helburuekin hobekien egokitzen diren metodologia eta estrategiak zehaztea.</li> <li>- Ikasketak garatzeko jarduera egokienak adostea, aukera emanez ezaguera berriak erdiesteko, lehendik dituztenak berrantolatuz eta balioetan oinarritutako prestakuntza sustatuz.</li> <li>- Arlo desberdinetako ezaguerak berriro sendotzea.</li> <li>- Curriculumeko hizkuntzen artean hizkuntza trebetasunen transferentziari lagundu diezaioketen estrategiak planifikatzea.</li> <li>- Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea</li> </ul>



## 2. ERANSKINA

### 6 - HOBEKUNTZA PLANA (2012 - 13 IKASTURTEA)



**IKASTETXE PUBLIKOA  
COLEGIO PÚBLICO**

**JARDUERA**

Jarduerahilabetekeagiteko data : E

Bukatzeko data : B

**EGOERA**

Hasigabekoekintza (ala zailtasunez) (HG)



Ekintzaprosesuan (PR)



Ekintzabukatuta (BU)



Helburua 1:	Kanpokoprobendiagnostikoakusita, hizkuntzagaitasunaeuskaraz 2. mailandagoenikasleenportzentaia %2a jeitsi 3. mailandagoenaigoz.															
JARDUERAK	ARDURADUNA	JARDUERA				EGOERA	JARDUERA			EGOERA	JARDUERA			EGOERA	BALORAPEN + : Pos / - : Neg	HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENA
		IR	UR	AZ	AB		UR	OT	MA		AP	MA	EK			
2012an LH 4. mailaneginikokanpokofrogenebaluaziodiagnostikoaanalizatu.	IB															
Arlo sendoak eta ahulak (hobetzekoak) identifikatu (eranskinakerabiliz).	Irak															

Proposamenak eta erabakiak hartu, gure programazioan sartuz (eranskinak erabiliz).	Irak																
Hezkuntza fisikoarekin bikoizketakegingodira.	Irak																
<b>Helburua 2:</b>	<b>Kanpoko probendiagnostikoakusita, hizkuntzagaitasunagaztelaniaridagokionez, aldebatetik 3. maila + en dagoenikasleen portzentaia igotzea %2a igotzea. Nafarroakobatazbestekoaren aldea %2a murriztu. Bestaldetik, 1. maila dagoenikasleen portzentaia %2a murriztu.</b>																
JARDUERAK	ARDURADUNA	JARDUERA				EGOERA	JARDUERA			EGOERA	JARDUERA			EGOERA	BALORAPEN + : Pos / - : Neg	HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENA	
		IR	UR	AZ	AB		UR	OT	MA		AP	MA	EK				
2012an LH 4. maila neginikokanpoko frogene baluaziodiagnostikoa analizatu.	IB																
Arlo sendoak eta ahulak (hobetzekoak) identifikatu (eranskinak erabiliz).	Irak																
Proposamenak eta erabakiak hartu, gure programazioan sartuz (eranskinak erabiliz).	Irak																

<b>Helburua 3 :</b>	<b>Kanpoko probendiagnostikoakusita, gaitasuna ingelesean 3. maila + en dagoenikasleen portzentaia %2a igotzea, Nafarroakobatazbestekoaren aldea %2a murriztu.</b>																
JARDUERAK	ARDURADUNA	JARDUERA				EGOERA	JARDUERA			EGOERA	JARDUERA			EGOERA	BALORAPEN + : Pos / - : Neg	HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENA	
		IR	UR	AZ	AB		UR	OT	MA		AP	MA	EK				
2012an LH 4. maila neginikokanpoko frogene baluaziodiagnostikoa analizatu.	IB																





➤ **Hobekuntza Plana, kanpo frogetan izandako emaitzen hausnarketa.**

*PROZESUA*

1.- Emaitzen irakurketa orokorra KPbn egin. (ikus akta) (Anexo 1)

2.- Zikloetan arloka hausnak eta egin eta ekintza konkritu eta proposamenak bildu (Eranskina 2), (Zikloetan banatutako itemen irakurketa koadroak)

3.- 12-13 ikasturterako ekintza zehatzen eta 13-14 ikasturterako proposamenak bildu. (Eranskina 3).

Ondoren lan egutegia zehaztuko da.

Aurreko ikasturtean izandako emaitzak, Nafarroako batz bestekoarekin alderatuta

	IKASLE KOPURU A ELORRI	1.maila %		2.maila%		3.maila%		3.maila+%	
		ELORR I	NA	ELORR I	NA	ELORR I	NA	ELORR I	NA
<b>HIZKUNTZA GAITASUNA EUSKARAZ</b>	34	11,8	13, 1	23,5	17, 4	52,9	60, 7	11,8	8,9
<b>HIZKUNTZA GAITASUNA GAZTELANIAZ</b>	34	17,6	11, 9	20,6	19, 5	61,8	59, 4	0,0	9,1
<b>GAITASUNA INGELESAN</b>	34	11,8	11, 0	20,6	13, 1	64,7	65, 5	2,9	10, 3
<b>GAITASUN MATEMATIKO A</b>	34	8,8	12, 3	23,5	17, 1	67,6	60, 5	0,0	10, 2



948 16 35 01  
KASTEKO ERREKUPUBLIKOA

COLECCO PÚBLICO

**ZIKLOA:**

Etxalazjaurerria, z/g  
31016-Iruñea-Pamplona  
Tfn.: 948 16 40 49 Faxa:

E-mail:

Web: [www.elorri.info](http://www.elorri.info)

## **EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA**

### *EMAITZEN IRAKURKETA*

#### **ARLOA: IRAKURMENAREN ULERMENA EUSKARAZ**

1.- Emaitzenanalisi  
(ikus taula: itembakoitzekoemaitza,lantzenduenprozesua, zailtasunmaila...)

---

2.- Arlo sendoak:

---

3.- Arlo ahulak (hobetzekoak)

---

4.- Proposamenak

---

5.- Hartutakoerabakiak

---



### 3. ERANSKINA

#### HOBKUNTZA PLANA: ULERMENA

#### 2. ZIKLOA

#### ERABAKIAK:

- Ikasturte bakoitzean bi irakurgairen erregistro idatzia bilduko dugu. Bertan zenbat item edo galdera dauden mota bakoitzeko, ikasle guztien izenak eta bakoitzak zenbat item edo galderari eman dioen erantzun egokia adieraziko dira. Behaketak adierazteko hutsune bat izango da ere.
- Item edo galderak bi motatakoak izango dira: alde batetik hitz-hitzezkoak edo informazio zuzena jasotzen duten horietakoak eta bestetik ulermen globalari dagozkionak: interpretazio galderak, zergatik, ondorioak, bere ezagupenekin lotzekoak...
  - **Informazio zehatzak:** gutxi gora behera galdera edo item kopuruetatik % 75a izango da.
  - **Ulermen globala:** gutxienez % 25a izango da.
- Ikasturtean zehar, mota askotako testuak erabiliko ditugu ulermena lantzeko (narratiboak, informatiboak, azalpenezkoak, argibide-testuak...).

#### **3. ZIKLOA:**

#### EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

#### EMAITZEN IRAKURKETA

#### ARLOA: IRAKURMENAREN ULERMENA EUSKARAZ

##### 1.- Emaizten analisia

(ikus taula: item bakoitzeko emaitza, lantzen duen prozesua, zailtasun maila...)

##### 2.- Arlo sendoak: 1., 20., 9., 2., 11., eta 14. itemak (galdera zuzenak: datu zehatzak, gertakizunak...)

3.- Arlo ahulak (hobetzekoak) 10., 4., 12., 16., 20/21/22. eta 8. itemak Galdera inferituak: metaforak, hiztegia, esaldien esanahiak... eta Idazlanen kalitatea: kohesioa eta ortografia

##### 4.- Proposamenak

Hobekuntza Plana dela eta irakurketaren ulermena, irakurketa eta idazmena errebisatzen dira eta 4 ildo hauetan aldaketak proposatuko dira:

- Denbora (zenbat denbora eskaini irakurketaren ulermenari...)
- Testuak (froga desberdinak...%50 inferituak eta %50 zuzenak) (ikus ditugu 10-11 urtekoak)
- Liburutegia (erabilera eta kantitatea...)
- Egunkaria (Berria...)
- Erregistroen aukeraketa (ikus ditugu 10-11 urtekoak)
- Konpromisoak (ikus ditugu 10-11 urtekoak)

Testuen interpretazioa landu, intenzioa, literarioak diren errekursoak (metaforak...) eta hiztegia aberastu.

##### 5.- Hartutako erabakiak

**Irakurmenaren ulermenari** buruzko aldaketak eta konpromisoak finkatu egiten dira:

- Denboraren aldetik (ulermenari eskaintzen zaion denbora alegia) ez dugu aldaketarik egingo. 5. mailan bi astetik behin saio bat erabiliko da irakurtzeko.
- Froga berriak diseinatuko dira hiru hilabete bakoitzean pasatzeko: ipuina, testu informatiboa eta triptiko informatibo bat. Diseinu/hautaketa lana hauek mailaka egingo dira (maila bilerak)
- Frogak honelako itemak izango ditu: %50 galdera zuzenak eta %50 galdera inferituak
- Erregistro ereduak finkatzen da (orokorra). Erregistroak 3. zikloko karpeta zintzilikatuak egongo dira irakasleek bete ahal izateko.
- Liburutegiaren erabilera: bai gelako edo liburutegiko liburuen irakurketan, gutxiengo kopuru bat adosten da: ikasleek 3 liburu irakurri beharko dituzte gutxienez hiru hilabete bakoitzean.
- Astean behin gutxienez Berria egunkaria irakurriko da (pantailan)
- Ahozko-tasunari lekutxo bat egingo zaio iratiaren erabilerarekin.



#### 4. ERANSKINA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUN/AK	BALIABIDEAK	LAN PROZEDURA	EGUTEGIA	ADIERAZLEAK
Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna programazioan eta ebaluaketetan txertatu: <b>irakurmena</b>	IRAKURKETA PLANA :  -Gelako liburutegiaren erabilera  -Eskolako liburutegiaren erabilera  -Eskolako "Liburu Azoka"  -Fira  -Eskolako aldizkaria  -Eskolako Web eta Bloga  -Bestelako lehiaketak	Tutoreak  Liburutegiaren arduradunak  Zikloko koordinatzailea  Aldizkariko arduraduna  Web arduradunak	-Gelako liburutegia  -Eskolako liburutegia  -Udaletxeko programa  -Eskolako aldizkaria  -Eskolako web-blog	Ziklo bakoitzak markatzen ditu irakurketa  Planaren eginkizunak	-Urte osoan  "Liburu azoka": maiatzean	-Liburu irakurrien erregistroak gelakoak eta liburutegikoak (karnet digitala)  -Aldizkariaren alea argitaratze
Hizkuntza adierazpenerako gaitasuna programazioan eta ebaluaketetan txertatu: <b>ahozkotasuna</b>	-IKT proiektuak -Haur Hezkuntzako proiektuak -Euskara sustatzeko kanpainak -Jolastorduetarako jokoen bilduma -Korrikaren antolaketa -Eskolako irratia erabilera -Eskolako hainbat lehiaketak (8txisteak...) -Ospetsuen bisitak -Hitzaldiak	-Zuzendaria  -Ikasketa buru	-HNP (hizkuntza normalizazio plana)  Euskara sustatzeko 3 urtetako Plan Estrategikoa (2. urtea)	-HNP a gidatzeko formaziozko 3 talde sortu dira: IKT, HH eta Euskara taldeak.  -Ahozkotasunari bultzada emateko ziklo bakoitzak markatzen ditu lehentasunak eta neurriak	Urte osoan	-HNP a gauzatzearen (%) ehunekoa -Formaziozko taldeen aktak -Zikloko aktak Ahozkotasuneko erregistroak



## 5. ERANSKINA

D eredua (LH 3. zikloa)

IZENA:.....DATA:.....

### Euskaldun bat Marten - Ariketak:

1. Nork kontaktzen du ipuin hau? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Zorrotzek
<input type="checkbox"/>	Unaik
<input type="checkbox"/>	Narratzaileak
<input type="checkbox"/>	Hegazkinak

2. Zertan ari ziren Zarauzko kaian haurrak? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Zinera joaten
<input type="checkbox"/>	Mendira igotzen
<input type="checkbox"/>	Jolasean eta igeriketan
<input type="checkbox"/>	Arrantzan eta kaniketan

3. Zergatik beldurtu ziren martetarrak Zarauzko haurrak ikusterakoan? (Labur idatzi)

.....

.....

4. Irakurri ondorengo hiru esaldiak eta esan zeinek adierazten duen hobekien ipuinaren ideia nagusia: (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	• Unai mutiko ausarta da eta Martetarren hizkuntza menderatzen duenez haiekin joaten da.
<input type="checkbox"/>	• Martetar batzuk heltzen dira Zarautzera, eta Unai gonbidatzen dute haiekin Martera joatera.
<input type="checkbox"/>	• Unaik uste du Marte Lurra baino politagoa dela eta hara joaten da bisitan.

5. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera:  
(1. 2. 3. 4.)


- Arratsalde on, lurreko gizon handiak!
- Oraingoz gure lana bukatu da eta Martera goaz.
- Une batean soinu berezi bat entzun zen Santa Barbara mendi gainean.
- Hamar gizon ziren hegazkinetatik jaitsi eta haurregana inguratu zirenak.

6. Zorrotzek honela dio: "...bake asmotan etorri gara..." Zer esan nahi du horrek? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).


- Herrian zegoen gerrarekin amaitu nahi zutela.
- Bake izeneko emakumea ekartzen zutela haiekin.
- Inori kalte egiteko asmorik ez zutela.
- Martetik diru asko ekartzen zutela.

7. Zer kontatzen da istorio honetan? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).


- Zarauzko herria **deskribatzen du** zehatz-mehatz.
- Martetarrak Lurrera zergatik etorri diren **argudiatzen du**.
- Haurren eta martetarren arteko topaketa nola ematen den **kontatzen du**.
- Martetarrek eraman behar dituzten gauzak **zerrendatzen ditu**.

8. Deskribatu Unaik, Martera joateko ovnian edo hegazkinean sartu zenean, izango zituen kontrajarritako bi sentimendu, hau da, bata bestearen aurkakoa:

1.- \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

2.- \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

**9. Esaldi hauetan azpimarraturik dagoen hitzaren sinonimoa eman:**

- Itsasoa bare-bare zegoen..... ( \_\_\_\_\_ )
- Haurrak izutu egin ziren..... ( \_\_\_\_\_ )
- Oraingo gure lana bukatu da..... ( \_\_\_\_\_ )
- Urtebete ederki pasako duzu..... ( \_\_\_\_\_ )

**10. Idatz ezazu hurrengo paragrafoa orainaldian eta geroaldian:**

"Lehenbizi, haurrak izutu egin ziren, baina ondo begiratu ondoren, ovni eder bat ikusi zuten Santa Barbara gainean."

**ORAINALDIA:**.....  
.....  
.....

**GEROALDIA:**.....  
.....  
.....

**11.- Unai martetarrei ea inork euskaraz egiten zuen galdetu zien. Horieta batek bazekien. Horrek, "Laster asko erantzun zion Unairi" Esaldi hori berdin geldituko litzateke **LASTER ASKO** jarri ordeztu hauetako bat jarrita: (Jarri X erantzun egokiaren laukian).**

- |                          |               |
|--------------------------|---------------|
| <input type="checkbox"/> | Modu horretan |
| <input type="checkbox"/> | Berehala      |
| <input type="checkbox"/> | Une hartan    |
| <input type="checkbox"/> | Garai honetan |

## 6. ERANSKINA

Deredua (LH 3. zikloa)

### Hemen duzu Zientziaren kutxaGuneaz jakin nahi duzun guztia.

#### MUSEOAREN JARDUERAK

- Erakustaldiak eta esperimentuak zuzenean.
- Bitak Astronomia Behatokia (erreserba egin behar da aldezturik).
- Ikastaroak eta txangoak.

#### MUSEOKO ORDUTEGIA

- **Asteartetik ostiralera:** 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara).
- **Larunbat, igande eta jaiegunetan:** 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara).
- **Itxita egongo da astelehenetan (uztaileko eta abuztuko astelehenetan izan ezik), baita beste egun hauetan ere:** Urtarrilaren 1ean eta 20an eta abenduaren 25ean.

#### PLANETARIUMAREN ORDUTEGIA

- **Asteartetik ostiralera:** 18:00etan
- **Larunbat, igande eta jaiegunetan:** 11:30ean - 12:15ean - 13:30ean - 16:00etan - 17:00etan - 18:00etan (udan 19:00etan ere bai).



2006ko PREZIOAK	OROKORRA	MURRIZTUA
MUSEOA	7 euro	5 euro
PLANETARIUM	2,5 euro	2 euro

#### TARIFA BEREZIAK

- Tarifa murriztua 18 urtetik beherakoetzat, 65 urtetik gorakoentzat, familia ugarietzat eta 15 pertsona baino gehiagoko talde antolatuetzat (erreserba egin behar da aldezturik).
- Gainera, tarifa bereziak dituzte Urrezko Txartela eta GazteKutxa Txartela dutenek

Informazio gehiago nahi baduzu,  
kontsultatu [www.miramon.org](http://www.miramon.org) web orria  
edo bidali mezu bat [kutxaespacio@kutxa.es](mailto:kutxaespacio@kutxa.es) helbidera.

TELEFONOAK	943 012 478	informazioa
	943 012 917	erreserbak

Mikeletegi pasealekua, 43-45 DONOSTIA



IZENA:.....DATA:.....

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Jarri X erantzun egokiaren parean edo labur erantzun.

### 1. Norentzako dagoidatzitate estuhau?

<input type="checkbox"/>	Donostiako biztanleentzat
<input type="checkbox"/>	Kutxagune abisitatunahidutenentzat
<input type="checkbox"/>	Lehen Hezkuntzako ikasleentzat
<input type="checkbox"/>	Kutxaguneko 65 urtetik gorakoentzat

### 2. Zein da estuhonenasmoa?

<input type="checkbox"/>	Donostiako garraio ariburuzko informazioa ematea
<input type="checkbox"/>	Museoak gauzak saltzea
<input type="checkbox"/>	Esperimentu bategiteko pausoak adieraztea
<input type="checkbox"/>	Informazioa emateko jendea toki horretara erakartzeko

### 3. Aipatu testuan erabilidiren 3 baliabide jendeari erakartzeko.

.....

.....

.....

### 4. Zein da egia?

<input type="checkbox"/>	Asteartetik ostiraleramuseo arratsalde bakarririk ez dago.
--------------------------	--


Udakojaiegunetan museo arratsaldeko zazpietan itenda.

Uztaileko eta abuztuko astelehenetan museoazabalik dago.

Planetarioan egunero sei emanaldidaude.

**5. Eskolatik museora 20 lagun bazoazte, zenbat ordaindubeharko duzue sartzeko osotara?**

.....

.....

**6. Bitan aipatzen da erreserba egin behar dela alde zurretik. Aipatu ubikasuhoriek.**

.....

.....

**7. Astronomia behatokia...**


Miramonendago.

Amarandago.

Alde Zaharreandago.

Erdialdeandago.

**8. Zure ustez, beharrezko informazioa emanaldietan? Eman hiru arrazoi.**

.....

.....

.....

## 9. Zientziaren Kutxaguneari buruzko informazio gehiagolortze kohiru modua ipatzendira testuan. Zeintzuk dira horiek?

.....  
.....  
.....

### 7. ERANSKINA

#### AZALPEN TESTUAK IDAZTEKO ESTRATEGIAK

##### ● IDATZI AURRETIK

- Hautatu eta zehaztu zein izango den azalduko duzun gaia.
- Zure testuaren helburua eta hartzaileak identifikatu.
- Egizu gaiari buruzko ideien zurrumbiloa.
- Hainbat iturritan bilatu gaiari buruzko informazioa eta informaziorik esanguratsuena eta egokiena hautatu.
- Eskema egin gai horren atzean ezkutatzaren diren atal ezberdinak hobeto zehazteko.
- Testuaren oinarriko egitura zehaztu.

##### ● IDAZTEAN

- Gogoratu: paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat garatu.
- Gehitu bertan testuen aipamenak, bibliografia erreferentziak edota elementu grafikoak, garatuko duzun gaia hobeto azaltzeko.
- Beharrezkoa bada, hitz espezializatuak erabili.
- Funtsezkoa ez dena, saihestu.

##### ● ZIRRIBORROA IDATZI ONDOREN

Egiaztatu ondoko puntu hauek:

- Betetzen du hasierako helburua?
- Hartzailea zein den kontuan hartu dut eta heren mailara egokitu dut idatzitakoa?
- Erraz, zailtasunik gabe irakur daiteke?
- Azalpen testuak egitura argia eta koherentea du?
- Lexiko zehatza eta gaizki ulerturik sorrarazten ez duena erabili dut?
- Ortografia zaindu dut? Badu akatsik?
- Konforme    zaude    idatzi    duzunarekin?

Birpasatu eta zuzendutakoan, behin-betiko testua idatzi. Saiatu, bestalde, testuaren aurkezpen erakargarria eta egokia egiten irakurleek gogotsu irakur dezaten.

Irakurleei erakutsi eta oharrak eta iradokizunak onartu testua hobetu ahal izateko.

## **AZALPEN TESTUEN EGITURA**

OSO EGITURA SINPLEA DA. Hiru atal izan ohi dituzte:  
Sarrera/ Garapena/ Ondorioa

Sarrerak datu hauek bil ditzake: gaia, helburuak, hipotesiak eta markoa ( denbora, tokia, garaia...)

Ondoren, garapenean zehar gaia jorratuko da. Paragrafoka antolatuko dira ideia desberdinak.  
Hartzaileak jasoko duen informazioa paragrafoz paragrafo zabalduz doa, aurrekoetan baino informazio gehiago eta zabalagoa jasoko duelarik.

Ondorioan, berriz, esandako guztiaren laburpena egiten da.

**Gure lanari dagokionez:**

- Sarrera: gaiaren aurkezpena. Zeri buruz hitz egin behar dugu.
- Garapena: garai hartako ezaugarri orokorrak, autore nabarmenenak, lan garrantzitsuenak, arazoak...
- Konklusioa edo ondorioak: ideia nagusien laburbilketa eta ondorioak atera. Taldekoen iritzia ere gehitu daiteke, edo irakurlearen arreta piztu galdera erretoriko baten bidez.

## **AZALPEN TESTUEN HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK**

- Gogoratu azalpena, batik bat, testu zientifiko-teknikoetan, kazetaritza testuetan eta saiakeran ageri dela. Testu zehatzak eta argiak dira, beraz horregatik erabili ohi dira esaldi bakunak eta koordinatuak, hau da, perpaus laburrak eta ulertzeko zailtasunik gabeak
- Hizkuntza-funtzio nagusia erreferentziala da: mezuak errealitatea islatu behar du, ez igorlearen iritzirik, subjektibotasunik.
- Azalpen testuetan narrazioa, deskribapena eta argudioa ere ager daitezke. Horrelakoetan testu mistoa dela esaten da.
- Lexikoa zientzia arlo bakoitzari dagokiona da, baina testuaren ezaugarrien menpe egongo da, hau da, testua dibulgaziorako (informazioa hartzaile ez espezializatuei zuzendua) ala testu espezializatu den hartu behar da kontuan.
- Aditz denborari dagokionez, batez ere orainaldia erabiltzen da.

## **PINGUINOA**



Pinguinoa munduko animaliarik interesgarrienetakoa da. Bere itxura ahula eta traketsaren atzean istorio zoragarri bat dauka, elkartasunaren eta biziraupenaren adibide nabarmena.

Pinguino motatarik famatuena enperadorea da. Antartidan bakarrik aurki daiteke. Bere burua eta hegoak beltzak dira, sabela zuria dauka eta lepoaren aldeetan tonalitate horixkak ditu. Moko zorrotza dauka, pixka bat okertuta, eta hanketan lumak ditu. Arrak eta emeak berdinak dira tamainu eta pisuan; haien artean desberdintasun nabarmen bakarra dago: arrek hanken artean poltsa antzeko bat daukate, kumeen ugalketan garrantzia handia daukana.

Izan ere, pinguinoen erreprodukzioa eta honen zehar egin behar dituzten bidaiak dira animalia hauen aspekturik interesgarrienak. Urtean behin, pinguinoek 90 km zeharkatzen dituzte ugalketa lekura ailegatzeko, haien arbasoek egin zuten bezala. Bertan, bikotea bilatzen dute eta, denbora tarte bat igaro ondoren, emeek 950 gr-ko arrautza jartzen dute. Ondoren, arrautza arrek hanken artean daukaten poltsara pasatzen dute. Ekintza hau ugalketaren momenturik garrantzitsuena da. Izan ere, arrautzek segundu batzuk baino gehiago izotza ukitzen egongo balira, kumeak hil egingo liriateke. Entrega hau arrakastaz betetzen bada, emea janaria bilatzera joaten da (arraina, krill, txibiak...), eta bi hilabete behar ditu ugalketa lekura bueltatu arte. Bitartean, arrek kondizio horietan bizirik irauteko, multzo trinkoa osatzen dute, eta kanpoan geratzen diren pinguinoak barrura pasatzen ari dira beti, beroa mantentzeko.

Emea bueltatutakoan, bere bikotea desberdintzen du haren dei karakteristikoarengatik. Orduan, kumea jaiotakoan, arra da janaria bilatzera joaten dena, 2 aste bitartean. Denbora horretan bueltatzen ez bada, kumearen heriotza gertatuko da. Ugalketaren ondoren, bikote askok elkarrekin jarraitzen dira, hurrengo urteko erreprodukzioara arte.

## 8. ERANSKINA

Lan monografikoa azalpen-testu luzea da, gai jakin bati buruz ditugun ezagutzak erakustea helburu duena. Lan monografikoak orotariko gaietarako buruzkoak izan daitezke: garai batean jazotako gertaera nagusiei buruzkoak, lurralde bateko landarediari buruzkoak nahiz idazle ospetsu bati buruzkoak, esaterako.

### Lan monografikoa nola egin:

1 - DOKUMENTATZEA - Lanaren gaia aukeratu ostean, gai horri buruzko dokumentazioa bilatzea da lehen egitekoa. Informazio bila, iturri hauetara joko dugu: . Zuzeneko iturriak: hala nola, museoetara joatea, hitzaldiak, pertsonen egindako elkarrizketak... . Zeharkako iturriak: entziklopediak, liburuak, aldizkariak, web-orriak...

2 - BILDU DUGUN INFORMAZIOA AZTERTZEA ETA HAUTATZEA - Interesgarria iruditzen zaigun informazioa hautatu.

3 - LANAREN ESKEMA EDO GIDOIA EGITEA - Orain nola antolatuko dugun informazio hori pentsatu behar dugu. Oso lagungarria izango zaigu eskema edo gidoi bat egitea, informazioa ordenatu, hierarkizatu eta lanaren mamia zer-nolako ataletan emango dugun erabakitzen hasteko.

Lan monografikoek honelako EGITURA izan ohi dute, oro har: - **Sarrera:** Zati honetan, lanaren helburua zein den, lana egiteko zein metodo erabili den eta informazioa nola antolaturik dagoen agertzen da. - **Mamia:** Lanaren edukien azalpen ordenatuak hartzen du zati hau. Normalean, informazio kapitulutan edo ataletan banatu ohi da. - **Ondorioa:** Egileak azaldutako ideien laburpena eman ez ezik, lorturiko emaitzak ere azaltzen ditu.

4 - LANA IDAZTEA - Idazketa-lanei ekiterakoan, komeni da hiztegi ulergarria erabiltzea, irakurri ahal eragozpenik gabe ondo ulertzen dena. Era berean, oso garrantzitsua da informazioa modu egokian ordenatzea, hots, sarrerarekin hastea, ondoren mamia ematea eta, azkenik, ondorioak aurkeztea. Lana zuzentzeko orduan, bi gauza hartu behar dira kontuan: alde batetik, edukia bera, eta bestetik, hizkuntza-zuzentasuna. Edukia ebaluatzean, ideiak ordena egokian eta garbi azalduta ote dauden aztertu behar da eta zerbait falta den ala, aitzitik, soberan dagoen erabaki. Hizkuntza-zuzentasuna ebaluatzean, berriz, puntuazioa, ortografia eta egitura sintaktikoak aztertu eta zuzenak diren egiaztatu behar da.

5 - LANA EDITATZEA - Edizio-lanak bi eginkizun nagusi hartzen ditu: batetik, atal bereziak ezartzea eta, bestetik, lanaren azken itxuraz, hots, aurkezpenaz, arduratzea. Atal bereziei dagokienez, hauek nabarmendu behar dira: . **Azala:** erakargarria izan behar. Gogora dezagun, lanaren egilea, ikasgunea, irakasgaiaren izena, irakaslea eta data jarri behar ditugula . **Aurkibidea:** Normalean hasieran agertzen da eta sarrerako, mamiko eta ondorio-gaiak zein orrialdetan eta nola landu diren argitzeko jartzen da. . **Bibliografia:** Bukaeran jartzen da eta lana egiteko erabili diren informazio-iturrien berri ematen da: liburuak, web-orriak... eta ahal bada egilea, titulua, hiria, argitaratzailea, urtea eta orrialdeak jarri ohi dira ordenamendu horretan.

## LAN MONOGRAFIKOA

### **SARRERA.**

- izenburua
- bandera(\*)
- kokapena (kontinentea, mugak, koordenatu geografikoak)
- hizkuntza
- populazioa (dentsitatea)
- bizi itxaropena

### **MAMIA**

#### -DATU GEOGRAFIKOAK:

- azalera
- populazioa (dentsitatea)
- hiriburua (\*)
- mendiak eta ibaiak (\*)

#### -KULTURA

- hizkuntza
- erlijioa
- gastronomia (\*)
- bitxikeriak (\*)

### **ONDORIOA**

#### BIBLIOGRAFIA

- internet (non?)
- liburuak
- aldizkariak

\*ARGAZKIAK

## 9. ERANSKINA

### ETXE TXAKURRAK

Etxe-txakur guztiak otsoarengandik datoz, Daniar handia (otsoa baino askoz handiagoa dena) eta Chihuahua (askoz txikiagoa) barne.

Lehenengo etxe-txakurra orain dela 12.000 urtekoa da, gutxi gorabehera. Azken Izotz Aroan, duela 40 mila urte inguru, gizakiak, otsoak bezala, ehizarako taldeetan elkartuta bizi ziren. Seguru asko, otsoak gizakiak uzten zituen hondakinak jaten hasi ziren, eta, horrela, otsokume batzuk mantsotu, eta handik belaunaldi batzuetara etxe-txakur bihurtu ziren.

Antzinako Egipto eta Mendebaldeko Asiakoak izan ziren txakur mota batzuk hazten lehenengoak; adibidez, artzakurrak ("mastinak") eta galgoak. Erromatarren garaian, gaur egun ezagutzen ditugun txakur-arraza gehienak zeuden. Galgoak eta beste txakur batzuk erabiltzen zituzten ehizarako eta artzakur handiak borroka eta gerrarako. Hau da, antzina txakurrak edukitzen zituzten ehizarako, artzaintzarako, zaintza-lanak egiteko, kiroletarako eta konpainia egiteko.

## 10. ERANSKINA

### LAGUNEN BROMA

Behin batean bizi omen ziren Karlos, Enrike eta Nerea deituriko anai-arrebak. Beraien amona hil zen eta bere hileta-elizkizunera joan ziren.

(Sartzen dira Gorka, Maddi eta Urtzi)

-MUSIKA!

-TXIMISTA!

(Gorka, Maddi eta Urtzi saiatzen dira ateratzen baina ezin dute)

-ATEAREN SOINUA!

Bat-batean lau zonbi atera ziren eta hiruei segika hasi ziren. Baino zombiakzombi batzuk zirenez zaplazteko ederra eman ondoren Karlos, Nerea eta Enrike ziztu bizian atera ziren hilerritik.

MUSIKA!

DEKORATUAREN ALDAKETA

HAIZEA! SOINUAK, ETA OHIARTZUNAK!

(itxi egiten dira gortinak)

ARGIAK GUTXITU!

Gauean, Karlosek gauza arraroak entzuten hasi zen eta bere anaia-arrebari deitu zien. Pasabidean, zonbiak, segika zituzten. Karlosek pixa gainean egin zuen, Enrikek kaka egin zuen eta Nerea negarrez hasi zen.

Sabaira bakarrik Nerea ailegatu zen Karlos eta Enrike galtzontziloak aldatzen ari zirelako eta azkenean Nerea harrapatu zuten eta...SORPRESA!!!!Bere lagunak zonbiak ziren. Eta Karlos eta Enrikeri susto ederra eman zioten.

IORITZ, URTZI, GORKA, MADDI, IRENE, ALONSO, ASIER, CAMILO

## 11. ERANSKINA

ÁLVARO CEJUDO

## “HURRENGO URTEAN HOBETO JOKATUKO DUDALA USTE DUT”



### **BIOGRAFIA:**

Alvaro Cejudo Carmona (Puente Genil, Cordoba, 1984ko urtarrilaren 29an-) futbolari espainiarra da, zeinen aldakortasuna ahalbidetzen du eraso posizio guztietan funtzioa du. Gaur egun, Club Atletico Osasunan jokatzen du

### ***Zein urtean hasi zinen futbol profesionalean jokatzen?***

2004. urtean Las Palmas futbol taldearekin. Uste dut, Errealaren aurka eta 5-0 gelditu ginen. Ni gol bat sartu nuen.

### ***Ongi jokatzen ari zarela uste duzu?***

Nahiko ongi baina hurrengo urtean hobeto jokatuko dudala uste dut.

### ***Noiz joango zara Osasunatik?***

Ez dut Osasunatik joateko asmorik.

### ***Zein da gehien gustatzen zaizun janaria?***

Nire emaztegaiaren patata tortilla.

### ***Aldageletan nor da humoretsuena?***

Ibrahima dudarik gabe.

### ***Nor bezala izan nahi duzu?***

Messi bezala izan nahi dut.

### ***Futbolaria ez bazina zer izango zinateke?***

Arkitektoa.

### ***Zein da zure kantarik gogokoena?***

Ai SeEuTiPegoMichelTelorena.

### ***Gustatzen zaizun abeslari bat aipatu:***

Pitbull.

### ***Mendilibarrekin gustura zaude?***

Bai.

## 12. ERANSKINA

### IZABA

Otsailaren 24ean, 6.mailako ikasleak eta Jose Luis, Mireia, Mikel eta Manu irakasleak Izabara joan ginen Aste Zuria pasatzera. Hotel Ezkaurren 20, HostalLolan 16 eta Txarrantxulon 8 ikasle egon ginen. Goizero eskiatzera joaten ginen. Lehenengo bi egunetan Mata de Hayan egon ginen eta hurrengo egunetan, ElFerialen eskiatu genuen. Han ginela, hiru taldetan banatu ginen. Arratsaldetan, hauxe egin genuen: Astelehenean, zinemara joan ginen, asteartean, Erronkariko Interpretazio Zentrora, asteazkenean, igerilekura, ostegunean, diskotekara eta ostiralean... Beno, ostiralean etxean geunden. Zineman, pelikula bat ikusi genuen. Interpretazio Zentroan, Izabako natura ikusi genuen. Asteazkenean, lehenengo, dantza bat ikasi genuen eta ondoren igerilekura joan ginen. Ostegunean, diskotekara joan ginen, baina txarrena, neska edo mutil batekin sartu behar zela izan zen. Diskotekan hiru ordu egon behar ginen hor barruan. Ostiral goizean, Mendillorrira bueltatu ginen.



“KARABANA”IRRATSAIOA

**Gidoia**

**365hitz**

**ESATARIA:**Arratsaldeon eta ongi etorri “Karabana” irratsaiora.Gaurjorratuko dugungaiamusikadaetahorretarakogurekinOihaneGarziagonbidatudugu.

OihaneGarzialruñeanjaiozenduela22urteetabertanbizida.Txiki-txikitatikizanzuenpanderoajotzekozaletasunaetagauregun Imazekinbatera“Gerrenaplat”taldeaosatzendu.

Zuriñe



OihanepanderoaetaZuriñeeskusoinuajozerromeriakalaitzen dituzteEuskalHerrikoTxokoaskotan.

Egunhauetanalbisteadaateradutendiskoberria“PanderoEro”izenekoaetahonez geroirratihonetanentzungozenutena.



Kaixo Oihane, diskoateraberi duzu, zermoduzkoesperientzia izan dadiskoagrabatzea?

**OIHANE:**Osoesperientziaaberatsaizanda.Gureametsazeneta“Lanbro”diskoetxeakproposatuziguneanezgenuenbirri tanpentsatu: kanta batzukuortu,landu etaestudioetarasartuginengrabatzeko.

**E:**Eta ondo eginikolana izan da.Astebeteandiskoren10.000ale saldu dituzue.Ezda markamakala!

**O:**Bai,benetan pozikgaude salmentekinorain arte. Gureztatosogarrantzitsuadajendea guremusika gustuko izatea.

**E:**Noizetanolahasizinenzuzepanderoajotzen?

**O:**Txikitanhasinintzen:8urterekinrikitixaeskolanemannuenizenaetaorduanteekinonpanderoajotzeari.Iruñanbert anikasi nuen: sasoihartan

gogoratzendutpanderoaastintzendenborapilaematennuela.Ai,gurebizilagunekzelakoburukominak pasakozituzten nireerruz!

E: Eta orain plazatik plazara ibiltzen zarete Zuriñe eta biok jaiak alaitzen. Jendea dantzan jartzea lan polita da. Baina lan honek izango ditu alde txarrak ere. Zein dira?

**O:**Lanhonekdituendesabantailarikhandienakordutegiak dira. Izan ere, normalean asteburuan egiten

duzulan.Hau da,zurelagunak,familialibredaudenean lanean zaude.Orain,esatebaterako,diskoaurkezten

gara herrizherrietalanean murgildutagaude:zurrunbilo

batean!Gurelagunakzedituguikustenia,ezta familiakoakere. Badakizuzer

pentsatzen gabiltzan: karabanabat hartuetalagunak, familia eta



zu  
ari

geubildutalanaeginahalabirabategiteaEuskalHerriazehar.

**E:**Ja,ja!Ezdaideiatxarra zuen ospaetaagenda ikusita.

Ongi,azkengaldera,bukatzeko.Zuendiskoariegindizkiotenkritikaonakikusitaездzue izangolanbidea aldatzekoasmorik,agian, baina bestelanbide bathartzekotan,zereginnahikozenuke?

**O:**Trikitixaetapanderoaastindukoezbagenitu,zerizan?Irratikoesarari.

**E:**Tira, hortaznikpanderoaastintzearieginbeharkodiot.

MilaeskerzurearteanizateagatikOihaneetaorain arte bezala... eutsi goiari!

*Eleketan*

5liburutikhartutaGrabatutadago: Euskara6 A

taldea

## 14. ERANSKINA

*Karabana irratsaioa*

Zertarako gonbidatu dute Oihane Garzia?

---

---

Zein da "Gerrena plat" taldearen azken diskoa ?

---

Aukeratu erantzun egokia:

- Diskoa grabatu dute aberatsak direlako.
- Haien ametsa lanbro artean galdu da.
- Diskoetxe batek nahi zutena proposatu zien.

Zer esan nahi du: "Ez da marka makala!"?

---

---

Aukeratu erantzun egokia:

- Hasieran ez zuen panderoa asko jotzen bizilagunak buruko mina zuelako.

- 8 urterekin izena eman ondoren Iruñetik kanpo ikasi zuen.
- Trikitixa eskolan apuntatu arte ez zen panderoa jotzen hasi.

Zein da Oihanaren lanak duen alderik txarrenea?

- Zurrumbilo batean murgilduta dagoenez ezin da igerilekuan murgildu.
- Ez du alde txarrik, besteek lan egiten dutenean bera libre dago eta.
- Ez ditu lagunak nahi adina ikusten asteburuan lan egin ohi duelako.

Zertarako pentsatu dute karabana bat hartzea?

---

---

Zuk zer nahiago duzu, Oihanek orain egiten duena edo panderoa astinduko ez balu egingo lukeena? Zergatik?

---

---

Noiz esaten dugu "eutsi goiari"?

- Norbait erortzen ari denean.
- Norbaiti adore eman nahi diogunean.
- Norbaitek aldaketaren bat egin nahi duenean.

Zer testu mota da?

- Narrazioa
- Elkarrizketa
- Instrukzioak



## 16. ERANSKINA

### PROGRAMAZIOA

IKASTETXEA: ELORRI IKASTETXE PUBLIKOA

IKASTURTEA: 2012-2013

MAILA: 6.

ARLOA: HIZKUNTZA

### SARRERA

### HELBURUAK

Inplikaturako kompetentziak:

#### AHOZKOAREN ULERMENA

1. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) zentzu orokorra identifikatzea.

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.
- Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du.
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.
- Testuko ideien arteko harremana antzematen du.
- Zikloaren berezko lexikoa ezagutzen du.

2. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) helburua antzematea.

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren xedea identifikatzen du.
- Testuaren igorlea antzematen du.
- Igorlearen asmoa identifikatzen du.
- Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.
- Testuaren generoa antzematen du.

3. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) proposatutako helburuei erantzuteko garrantziko informazioa hautatzea.

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren garrantziko informazioa bereizten du.
- Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.
- Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.

4. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) edukia interpretatzea.

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu.
- Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.
- Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.
- Diskriminaziozko esaerak antzematen ditu.

5. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.

1 2 3 4 5 6 7 8

- Entzute aktiboa egiten du.
- Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.
- Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.
- Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.

#### IDATZIAREN ULERMENA

6. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) zentzu orokorra identifikatzea.

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.
- Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du.

- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.
- Testuko ideien arteko harremana antzematen du
- Zikloaren berezko lexikoa ezagutzen du.

**7. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) helburua antzematea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren xedea identifikatzen du.
- Testuaren igorlea antzematen du.
- Igorlearen asmoa identifikatzen du.
- Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.
- Testuaren generoa antzematen du.

**8. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Irakurketaren helburua identifikatzen du.
- Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.
- Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.
- Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.

**9. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) edukia interpretatzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu.
- Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.
- Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.
- Diskriminaziozko esaerak antzematen ditu.

**10. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.
- Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.
- Ulermenean arazoak antzematen ditu.
- Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.

## MINTZAMENA

**11. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ekoiztea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Hartzailearen ezaugarriak kontuan izaten ditu.
- Testuaren xedea kontuan izaten du.
- Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.
- Egoerari begira erregistro egokia hautatzen du.
- Testu-genero egokia hautatzen du.

**12. Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) planifikatzen hastea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Informazioa hainbat euskarritan bilatzen du.
- Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.
- Diskurtsoa egituratzen du.

**13. Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) erabiliz egoki mintzatzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Argi eta ekarri egokiaz mintzatzen da.
- Elementu prosodiko eta keinuzkoak erabiltzen ditu.
- Testu-generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen ditu.
- Diskriminaziozko esaerak saihesten ditu.

**14. Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ekoiztean kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.
- Ekoizpen-prozesuan autonomia agertzen du.

## IDAZMENA

**15. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ekoizteko.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Bere ekoizpenerako, testuaren xedea kontuan izaten du.
- Bere testua hartzailera egokitzen du.
- Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.
- Egoerari begira erregistro egokia erabiltzen du.
- Testu-genero egokia hautatzen du.

**16. Gidatuta, hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ekoizteko prozesua planifikatzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Informazioa hainbat iturritan bilatzen du.
- Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.
- Testuaren edukia eta forma planifikatzen eta egituratzen ditu.

**17. Hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak bidez (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) adierazi beharrekoa modu egokian adieraztea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Testua egoki eta zuzen aurkezten du.
- Askotariko hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu.
- Diskriminaziozko esaerak erabiltzea saihesten du.

**18. Hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ekoiztean kontroleko eta autoebaluazioko estrategiak erabiltzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.
- Testua ekoizteko eta berrikusteko prozesuan autonomia agertzen du.

## AHOZKO ELKARREKINTZA

**19. Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Naturaltasunez esku hartzen du eta aktiboki entzuten du.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izaten ditu.
- Informazioa eta azalpenak modu ordenatu eta egokian ematen ditu.

**20. Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan arau soziokomunikatiboak errespetatzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Hizkuntza-moldeak errespetatzen ditu.
- Besteen esku-hartzeak errespetatzen ditu.
- Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.
- Adei-legea kontuan izaten du.
- Diskriminaziozko esaerak saihesten ditu.

**21. Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan komunikazioari eusteko estrategiak erabiltzea.**

1 2 3 4 5 6 7 8

- Komunikazioari eusteko konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu.

### OINARRIZKO GAITASUNAK

1	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA	2	MUNDU FISIKOA EZAGUTU ETA HAREKIN ELKARRERAGITEKO GAITASUNA
3	MATEMATIKARAKO GAITASUNA	4	INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA ETA GAITASUN DIGITALA
5	GAITASUN SOZIALA ETA HIRITARTASUNA	6	ARTE ETA KULTUR GAITASUNA
7	IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA	8	AUTONOMIA ETA EKIMEN PERTSONALA

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	ebaluazioa:		
	1.	2.	3.

**METODOLOGIA (taldekatzea, ikastetxeko proiektuak, jarduera osagarriak, tailerrak, irteerak...)**

BALIABIDEAK		
MATERIALAK	PERTSONALAK	ESPAZIALAK

**ANIZTASUNAREN TRATAERA (Indartzeak...)**

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

<b>KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK (edukiak, jarrera...%)</b>	<b>EBALUAZIORAKO TRESNAK</b>
--	------------------------------

**ERREKUPERAKETA NEURRIAK**



